



**ENERGIA BERRIZTAGARRIEN
KOOPERATIBA**

ESTATUTUAK

ESTATUTU SOZIALAK

AURKIBIDEA

I. KAPITULUA.- XEDAPENAK.....	5
1. artikulua. IZENA.....	5
2. artikulua. XEDEA.....	5
3. artikulua. HELBIDE SOZIALA	6
4. artikulua. IRAUPEN ETA LURRALDE-EREMUA.....	6
5. artikulua. HIRUGARRENEKIKO OPERAZIOAK	6
II. KAPITULUA.- BAZKIDEAK.....	6
6. artikulua. BAZKIDE IZAN DAITEZKEEN PERTSONAK	6
7. artikulua. BAZKIDEAK ONARTZEKO BALDINTZAK	7
8. artikulua. ONARTZEARI BURUZKO ERABAKIA	9
9. artikulua. ONARTZEKO PROZEDURA.....	9
10. artikulua. ONARPENAREN GAINEN EBAZPENEI ERREKURTSOA JARTZEA	10
11. artikulua. BAZKIDEEN BETEBEHARRAK	10
12. artikulua. BAZKIDEEN ESKUBIDEAK	11
13. artikulua. INFORMAZIO ESKUBIDEA. MUGAK ETA BERME SISTEMAK.	12
14. artikulua. BORONDATEZKO BAJA.....	13
15. artikulua. NAHITAEZKO BAJA.....	13
16. artikulua. BAJAREN ONDORIOAK ETA ERREKURTSOAK	14
17. artikulua. BAZKIDEEN FALTAK	14
18. artikulua. FALTA SOZIALENGATIKO ZIGORRAK	15
19. artikulua. ZIGORTZEKO PROZEDURAK	16
20. artikulua. KANPORATZEA.....	17
21. artikulua. BARNE-ANTOLAMENDU FUNTZIONALERAKO OINARRIAK.....	17
III. KAPITULUA.- ORGANOAK.....	18
22. artikulua. ORGANO SOZIALAK	18
23. artikulua. BATZAR OROKORRA	19
24. artikulua. BATZAR OROKORRAREN OSAERA	19
25. artikulua. BATZAR OROKORRAREN ESKUMENAK	19

26. artikulua. BATZAR-MOTAK: OHIKOA, EZOHIOA, UNIBERTSALA	20
27. artikulua. OHIKO ETA EZOHIO BATZARREN DEIALDIA	21
28. artikulua. BATZAR OROKORRAREN FUNTZIONAMENDUA	22
29. artikulua. ERABAKIAK HARTZEA.....	23
30. artikulua. BOTO ESKUBIDEA	23
31. artikulua. GEHIENGOAK.....	24
32. artikulua. BILERAREN AKTA	24
33. artikulua. BATZAR OROKORRAREN ERABAKIAK INPUGNATZEA.....	25
34. artikulua. ERREKTORE KONTSEILUA	26
35. artikulua ERREKTORE KONTSEILUAREN OSAERA ETA XEDAPENAK.....	29
36. artikulua. KARGUEN EGITEKOAK	30
37. artikulua. ERREKTORE KONTSEILUAREN FUNTZIONAMENDUA	31
38. artikulua. ERREKTORE KONTSEILUAREN FUNTZIOAK ESKUORDETZEA	31
39. artikulua. ERREKTORE KONTSEILUKO KIDEEN ERANTZUKIZUNAK	32
40. artikulua. ERANTZUKIZUN-AKZIOA ETA ERABAKIAK INPUGNATZEA.....	32
41. artikulua. ZUZENDARI KUDEATZAILEA. IZENDAPENA ETA	33
_____ KARGUGABETZEA. BETEBEHARRAK ETA ERANTZUKIZUNAK.	33
42. artikulua. ZAINZA-BATZORDEA . OSAERA, AGINTALDIA ETA IZENDAPENA.....	33
43. artikulua. INFORMAZIO-ESKUBIDEA	34
44. artikulua. ESKUMENAK ETA FUNTZIONAMENDUA	34
45. artikulua. ERREKURTSO BATZORDEA .OSAERA, AGINTALDIA ETA IZENDAPENA.....	35
46. artikulua. ESKUMENAK ETA FUNTZIONAMENDUA	35
47. artikulua. ERABAKIEN ONDORIOAK	36
IV. KAPITULUA.- ARAUBIDE EKONOMIKOA.....	36
48. artikulua. BAZKIDEEN ERANTZUKIZUNAK	36
49. artikulua. KAPITAL SOZIALA	36
50. artikulua. NAHITAEZKO EKARPENAK	37
51. artikulua. BORONDATEZKO EKARPENAK	38
52. artikulua. EKARPENAK EGUNERATZEA.....	38
53. artikulua. EKARPENEN INTERESAK.....	38
54. artikulua. EKARPENAK ESKUALDATZEA	39
55. artikulua. EKARPENAK ITZULTZEA	40
56. artikulua. ALDIZKAKO KUOTAK ETA EZ OHIKOAK	41
57. artikulua. BESTE FINANTZAKETA BATZUK.....	41

58. artikulua. SOBERAKIN GARBIAK.....	41
59. artikulua. SOBERAKIN ERABILGARRIEN BANAKETA	42
60. artikulua. NAHITAEZKO ERRESERBA FUNTSA ETA DERRIGORREZKO KONTRIBUZIOA	42
61. artikulua. BORONDATEZKO ERRESERBA FUNTS BANAEZINA	43
62. artikulua. GALERAK EGOZTEA.....	43
63. artikulua. KONTU AUDITORETZA	44
V. KAPITULUA.- DOKUMENTAZIO SOZIALA ETA KONTABILITATEA	45
64. artikulua. DOKUMENTAZIO SOZIALA	45
65. artikulua. KONTABILITATEA.....	45
66. artikulua. URTEKO KONTUAK GORDETZEA	46
VI KAPITULUA.- DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA	46
67. artikulua. DESEGITEKO ARRAZOIAK ETA ERABAKIA	46
68. artikulua. LIKIDAZIOA	47
69. artikulua. SOZIETATEAREN ONDASUNAK ESLEITZEA	47
AZKEN XEDAPENAK	47
<i>LEHENA. ARBITRAJE KOOPERATIBOA</i>	<i>47</i>
<i>BIGARRENA. LEGELARI AHOLKULARIA.....</i>	<i>48</i>
<i>HIRUGARRENA. INDARKERIEI ETA DELITUEN PREBENTZIOA</i>	<i>48</i>

ESTATUTU SOZIALAK

I. KAPITULUA.- XEDAPENAK

1. artikulua. IZENA

Larrabetzuko energia berriztagarrien KOMUNITATEA LARRAOLA (aurrerantzean Kooperatiba) izenarekin Larrabetzun (48195), kooperatiba integral misto bat, sortu da, irabazi asmorik gabea eta izaera juridikoa duena, Euskadiko Kooperatibei Legearen printzipio eta xedapenen, eta ezarri beharreko gainerako aginduen eta estatutu hauetan xedatutakoaren arabera.

2. artikulua. XEDEA

Kooperatiba honen helburua energia komunitate baten jarduerak garatzea da, energia berriztagarrien erabilera sustatzeari buruzko Europako zuzentzariek ezarritako printzipioen arabera. Hala, irabazi finantzarioak eman beharrean, ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-onurak emango dizkie bazkideei, kideei eta lan egiten duen tokiari. Horretarako, eremu hauetan jardungo du:

- Energia-kontsumoaren murrizketa, energia-eraginkortasuneko neurrien, prestakuntzaren, informazioaren eta aholkularitza-zerbitzuen bidez, baita birgaitze partzial, sakon eta integralaren arloko esku-hartzeak ere;
- Mugikortasunaren arloan energia-mendekotasuna murrizteko beharrezkoak diren jarduerak. Horretarako, honako lehentasun hauek errespetatuko dituzten plan eta zerbitzu espezifikoak sustatuko dira: oinez ibiltzea; bizikletaz edo bitarteko mekanikoz joatea inolako sistema osagarririk erabili gabe; mugikortasun-baliabideak partekatzea, betiere jatorri berriztagarriko erregaiak erabiltzen badituzte.
- Energia berriztagarriei buruzko proiektuak sustatzea, komunitatean energia burujabetza lortzeko, gutxienez. Hauek izan daitezke:
 - I. Eguzki-energia fotovoltaiako, eoliko eta hidroelektrikoko teknologietan oinarritutako elektrizitatea sortzeko proiektuak, batez ere.
 - II. Beroa sortzeko/banatzeko proiektuak (beroa/hotza), hurbileko baliabideetan oinarrituta eta modu jasangarrian tratatuak.
- Energiari lotutako ekipoak eta zerbitzuak modu mankomunatuan erostea, kolektibo osoari baldintza hobeak eskaintzeko.
- Talde zaurgarriak integratzea, kooperatiba-printzipio unibertsalean oinarrituta, haien energia-mendekotasuna gutxitzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko jardueren bidez.

Kooperatibak bere helburu soziala lortzen lagunduko duten nazioarteko proiektuetan parte hartu ahal izango du.

Euskara izango da kooperatiban lehenetsitako hizkuntza. Kontratatzeko diren langileek euskaraz nahiz gaztelaniaz funtzionatzeko gaitasuna izan beharko dute.

Bizi sostengarria eta pertsonen arteko berdintasuna lortze aldera, Estatutu honetan aplikatuko da berdintasuna sustatzeko uneoro indarrean dagoen legedia.

3. artikulua. HELBIDE SOZIALA

Helbide soziala hauxe izango da: _____ Bizkaiko lurralde historikoko Larrabetzu udalerrian. Udalerri berean egindako lekualdatzeak Errektore Kontseiluak erabaki ditzake, Euskadiko Kooperatiben Legean ezarritakoari jarraituta.

4. artikulua. IRAUPEN ETA LURRALDE-EREMUA

Sozietatea iraupen-mugarik gabe sortzen da, eta jarduteko lurralde-eremua Euskal Autonomia Erkidegoa izango da. Bere jarduera kooperatibizatua, batez ere Larrabetzun gauzatuko du.

5. artikulua. HIRUGARRENEKIKO OPERAZIOAK

Kooperatibak ondasunak edo zerbitzuak eman ahal izango dizkie bere eremuaren barruan bazkide ez diren pertsona edo erakundeei. Lehendik dagoen legeriatik eratorritako baldintzak daudenean eta baldintza horiek hirugarren pertsonekin egindako eragiketetan mugak ezartzen dituztenean, muga horien balioa dagokion kategoriarako baimendutako gehienekora iritsiko da.

II. KAPITULUA.- BAZKIDEAK

6. artikulua. BAZKIDE IZAN DAITEZKEEN PERTSONAK

Bazkideen eta Kooperatibaren arteko harremana sozietate-harremana da.

Edozein pertsonak bazkide izateko aukera dauka, eta bazkide guztiek tratatu berdina jasotzeko eta diskriminatua ez izateko eskubidea dute; beraz, inor ezin izango da diskriminatu jaiotza, arraza- edo etnia-jatorria, sexua, erlijioa, sinesmena edo iritzia, adina, desgaitasuna, sexu-joera edo -identitatea, genero-adierazpena, gaixotasuna edo osasun-egoera, egoera serologikoa eta/edo patologiak eta nahasmenduak jasateko joera genetikoa, hizkuntza, egoera sozioekonomikoa, edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozial dela-eta.

Bazkideak ondorengo modalitate hauetako batean kokatuko dira:

1. Bazkide erabiltzaileak

Kooperatibaren zerbitzuen azken hartzaile diren pertsona fisikoak eta juridikoak. Larrabetzun erroldatuak egon beharko dute, edota Larrabetzun kokatutako etxe, lursail edo jarduera ekonomiko baten jabe izan.

2. Lan-bazkideak

Kooperatibarekin lan-harremana izanda, Estatutuen 7. artikuluan zehazten diren baldintzak betetzen dituzten pertsonak.

3. Bazkide hornitzaileak

Bazkide hornitzaile izan ahalko dira kooperatibaren jarduera gauzatzeko behar diren zerbitzuak (azpiegiturak, hornikuntzak, aholkularitza) eskaintzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak. Lehentasuna izango dute herrikoek, eta ondoren eskualdekoek.

4. Bazkide laguntzaileak

Kooperatibaren helburu soziala lortzen lagundu nahi duten pertsona fisiko eta juridikoak (erakunde publikoak nahiz pribatuak) bazkide laguntzaile izan ahalko dira.

5. parte sozialaren bazkide titularra, botoa duena

Kooperatibaren xedearekin edo jarduerarekin interes berezia izan gabe ere, bere inbertsiotan parte hartzeko aukera emango da boto-eskubidea duten sozietate-zatien bitartez. Zati horien titularrak izango dira parte sozialaren bazkide titularra, botoa duena

7. Artikulua. BAZKIDEAK ONARTZEKO BALDINTZAK

1. Bazkide erabiltzaile izateko, baldintza hauek bete behar dira:

- a. 18 urte baino gehiago izatea edo nortasun juridiko aski edukitzea.
- b. Kooperatibak merkaturatutako produktuak eta zerbitzuak erostea.
- c. Kapital sozialaren ekarpenetarako hartzen diren konpromisoak onartzea, eta estatutu sozial hauetan aipatzen den hasierako nahitaezko ekarpena edo Batzar Orokorretan onartu eta indarrean jartzen dena egitea.
- d. Estatutu sozial hauetan bazkide mota honi ezartzen zaion parte-hartze konpromisoa onartzea.
- e. Kooperatibaren sozietate-organoetan erabakitako akordioak onartzea eta betetzea, eta orobat onartzea eta betetzea indarrean dagoen kooperatiben legeria, estatutu sozial hauek eta barne-araudia.
- f. Bazkide izateko eskaera idatziz egitea Errektore Kontseiluari.

2. Lan-bazkide izateko, baldintza hauek bete behar dira:

- a. Kooperatibarekin lan-harremana kontratatzeko gaitasuna izatea.

- b. Eskaintzen den lanpostua betetzeko behar den titulua eta prestakuntza profesionala izatea eta probak gainditu dituela erakusten duen zuzendaritzaren aldeko txostena eskuratzea. Proba horien iraupena 6 hilekoa izango da, gehienez ere. Zenbait lanpostutarako –Errektore Kontseiluak adieraziko du zein diren postu horiek- baldintza profesional bereziak eskatzen badira, 18 hilekoa ere izan daiteke probaldia, gehienez.
- Probaldi honetan:
- Kooperatibak eta izangaiak harremana eten dezakete alde bakarreko erabaki librea hartuta.
 - Ezingo du aukeratua izan sozietatearen karguetarako.
 - Ez da behartuta egongo ekarpena egitera, ez sarrera-kuota ordaintzera.
 - Probaldian direla, ez zaie egotziko kooperatibaren galerarik, eta ez dute eskubiderik izango erretornu kooperatiborako; horrek ez du galaraziko onurarik baldin badago soldatako langileen zenbateko bera kobratzea.
- c. Kapital sozialaren ekarpenetarako hartzen diren konpromisoak onartzea, eta estatutu sozial hauetan aipatzen den hasierako nahitaezko ekarpena edo Batzar Orokoretan onartu eta indarrean jartzen dena egitea.
- d. Estatutu hauetan bazkide mota honi ezartzen zaion parte-hartze konpromisoa onartzea.
- e. Kooperatibaren sozietate-organoetan erabakitako akordioak onartzea eta betetzea, eta orobat onartzea eta betetzea indarrean dagoen kooperatiben legeria, estatutu sozial hauek eta barne-araudiko arauak.
- f. Bazkide izateko eskatzea, eta eskaera idatziz egitea Errektore Kontseiluari.

3.- **Bazkide hornitzailea** gisa onartua izateko, baldintza hauek bete behar dira:

- a) 18 urte baino gehiago izatea edo nortasun juridiko aski izatea.
- b) Kapital sozialari egin beharreko ekarpenei buruzko konpromisoak onartzea, eta hasierako nahitaezko ekarpena egitea, bazkide hauentzat estatutu sozial hauetan finkatutakoa edo Batzar Orokorrean erabaki eta indarrean dagoena.
- c) Estatutu hauetan bazkide mota honi ezartzen zaion partaidetza-konpromisoa onartzea.
- d) Kooperatibako organoek hartutako baliozko erabakiak onartzea eta betetzea, eta orobat onartzea eta betetzea indarrean dagoen kooperatibei buruzko legedia, Estatutu Sozial hauek eta Kooperatibaren Barne-araudia.
- e) Onartua izateko eskaera egitea, idatziz, Kontseilu Errektoreari.
- f) Barne Araudian horrelako pertsonentzat ezartzen diren homologazio irizpideak betetzea.

4.- **Bazkide laguntzaile** izateko, baldintza hauek bete behar dira:

- a) 18 urte baino gehiago izatea edo nortasun juridiko aski edukitzea.
- b) Kapital sozialaren ekarpenetarako hartzen diren konpromisoak onartzea, eta estatutu hauetan aipatzen den hasierako nahitaezko ekarpena edo Batzar Orokorrean onartu eta indarrean jartzen dena egitea.

- c) Estatutu hauetan bazkide mota honi ezartzen zaion parte-hartze konpromisoa onartzea.
- d) Kooperatibaren sozietate-organoetan erabakitako akordioak onartzea eta betetzea, eta orobat onartzea eta betetzea indarrean dagoen kooperatiben legeria, estatutu sozial hauek eta barne-araudiko arauak.
- e) Bazkide eskaera idatziz egitea Errektore Kontseiluari.
- f) Barne Araudian horrelako bazkide diren pertsonentzat ezartzen diren praktika egokien, gardentasunaren eta erantzukizuneko aitortpenaren irizpideak betetzea.

5.- parte sozialaren bazkide titularra, botoa duena izateko, baldintza hauek bete behar dira:

- a) 18 urte baino gehiago izatea edo nortasun juridiko aski edukitzea.
- b) Kapital sozialaren ekarpenetarako hartzen diren konpromisoak onartzea, eta estatutu hauetan aipatzen den hasierako nahitaezko ekarpena edo Batzar Orokorrean onartu eta indarrean jartzen dena egitea.
- c) Estatutu hauetan bazkide mota honi ezartzen zaion parte-hartze konpromisoa onartzea.
- d) Kooperatibaren sozietate-organoetan erabakitako akordioak onartzea eta betetzea, eta orobat onartzea eta betetzea indarrean dagoen kooperatiben legeria, estatutu sozial hauek eta barne-araudiko arauak.
- e) Bazkide eskaera idatziz egitea Errektore Kontseiluari.
- f) Barne Araudian horrelako bazkide diren pertsonentzat ezartzen diren praktika egokien, gardentasunaren eta erantzukizuneko aitortpenaren irizpideak betetzea.

8. artikulua. ONARTZEARI BURUZKO ERABAKIA

Bazkideak onartzeari buruzko erabakiak Kontseilu Errektoreari dagozkio.

1. Kontseilu Errektoreak onarpena mugatu ahal izateko, bidezko arrazoiren bat izan beharko du, hauetakoren batean oinarritua:
 - a) Bere produktuak edo zerbitzuak Kooperatibak pentsatu eta erabakita dituen gutxieneko kalitate, prezio eta arretaz bazkideei eskaintzeko gai izatea .
 - b) Objektiboki bazkide gehiago behar ez izatea kooperatibaren antolamendu eta funtzionamendurako.

Bazkide izateko eskaera ezingo da onartu edo ukatu lege kanpoko edo bidegabeko diskriminaziotzat har daitezkeen arrazoiengatik, helburu sozialari dagokionez.

9. artikulua. ONARTZEKO PROZEDURA

Bazkide izateko eskaera idatziz egingo zaio Errektore Kontseiluari, eta hark erabakiko du zer egin eskaera jaso eta 60 egun igaro baino lehen. Idatziz adieraziko zaio interesdunari onarpenaz zer ebatzi den eta, ezezkoa bada, zergatia emango da.

Aipatutako epea gainditu eta gero ez baldin badago berariazko ebazpenik, onartutzat hartuko da bazkidea.

10. artikulua. ONARPENAREN GAINEN EBAZPENEN ERREKURTSOA JARTZEA

1. Bazkide izateko eskaera ukatua denean, erabakiaren aurka errekurtsoa jarri ahalko du eskatzaileak Errekurtsoen Batzordean edo, halakorik ez bada, Batzar Orokorrean, behar bezala egindako jakinarazpena egin eta hurrengo 20 egun baliodunetan.

Errekurtsoen Batzordeak errekurtsoa jaso den egunetik zenbatzen hasita 30 eguneko epean ebatzi beharko du, eta Batzar Orokorrak, berriz, errekurtsoa jaso eta lehen batzarrean bukatuko da epea. Erabakia isilpeko bozketa bidez hartuko da.

Bai kasu batean eta bai bestean, interesdunari entzun ostean hartuko da erabakia.

2. Bazkide izateko eskaera onartua denean, erabakiaren aurka errekurtsoa jarri ahalko da Errekurtsoen Batzordean edo, halakorik ez bada, Batzar Orokorrean, hori ere erabakia jakinarazten denetik 20 egun balioduneko epean, baldin eta gutxienez bazkideen % 10ak hala eskatzen badu.

Onartu den eskaera lan-bazkide izatekoa bada, ere, erabakia inpugnatu ahalko da, baldin eta gutxienez lan-bazkideen % 20ak hala eskatzen badu.

Edonola ere, Errekurtsoen Batzordeak errekurtsoa jaso den egunetik zenbatzen hasita 30 eguneko epean ebatzi beharko du, eta, halakorik ez badago, Batzar Orokorrak errekurtsoa jaso eta lehen batzarrean hartu beharko du erabakia, interesdunari entzun ostean, isilpeko bozketa bidez.

11. artikulua. BAZKIDEEEN BETEBEHARRAK

Betebehar hauek dituzte bazkideek:

- a. Oro har, Kooperatibaren jarduerari lagundu behar diote, dituzten gaitasunak eta ondasunak laguntza horren mesedetan erabiliz.
- b. Batzar Orokorreko bileretara eta deitzen zaien gainerako organoetara joan behar dute.
- c. Eman zaizkien karguak onartu behar dituzte, betiere ez badago bidezko arrazoirik kargua ez onartzeko.
- d. Kooperatibaren xede sozialarekin bat egiten duten jardueretan parte hartu behar dute. Horretarako, gutxieneko parte-hartze modulu edo arau hauek izango ditu kooperatibako bazkide mota bakoitzak:
 - Bazkide erabiltzaileak: kooperatibak merkaturatzen dituen produktuak eta zerbitzuak erabiltzea, kooperatibak ipintzen dituen prezioan ordaintzea eta garaian-garaian ipintzen dituen aldizkako ekarpenak eta kuotak ordaintzea.
 - Lan-bazkideak: kooperatiban lanean aritzea, eskusiboki, ez bada lanaldi partziala edo beste arrazoiren bat obligazio horretatik salbuesteko. Horrelakoetan, Errektore Kontseiluak erabakiko du zer

egin.

- Bazkide hornitzaileak: Kooperatibaren Estatutueta eta Barne Araudian zehaztutako printzipio eta arauen arabera jardutea, eta une oro arduraz, etikaz eta profesionalki jokatzeko.
 - Bazkide laguntzaileak: gizarte-helburua garatu eta hobetu dadin, eskatzen zaion lanetan kooperatibari laguntzeko prest egotea.
- e. Jasotako ondasunak eta zerbitzuak ordaindu behar dituzte Errektore Kontseiluak erabaki duen baldintzetan eta epean.
 - f. Ez egitea kooperatibaren helburu sozialarekin lehian dagoen jarduerarik, eta ez aritzea lankidetzan horrelako jarduerak egiten dituztenekin; salbu eta Errektore Kontseilua espresuki horretarako baimena ematen duen kasuetan.
 - g. Kooperatibaren jarduerak eta datuak isilpean gorde behar dituzte, berorren interesen kalterako bada horiek jakinaraztea.
 - h. Kapital sozialari egin beharreko ekarpenak ordaindu behar dituzte ezarritako baldintzetan.
 - i. Bazkide izateak dakartzan betebeharrak ekonomikoak onartu behar dituzte.
 - j. Galeren egozpenean, Batzar Orokorrak erabakitzen duen kopurua ordaindu behar dute.
 - k. Ez dute publikoki itsustu behar, era nabarmenean, kooperatibaren eta oro har kooperatibismoaren izen ona.
 - l. Giro sozial eta bizikidetzan on baten alde egin behar dute kooperatiban.
 - m. Lege-arauetan eta estatutu hauetan datozen gainerako eginbideak bete behar dituzte, baita kooperatibaren organoek behar bezala onartutako erabakietatik eratorritakoak ere.
 - n. Lege-araudiak ezarritako pertsonen berdintasunerako printzipioak beteko dituzte; eta, bereziki, inork ez du sexuan edota generoan oinarritutako inolako jazarpenik eragingo, ezta sexu-jazarpenik ere.

Betebeharrak horiek berdinak dira bazkide guztientzat, eta bete egin behar dira legearauen, estatutu-arauen eta kooperatibako organoek behar bezala onartuta erabakitakoen arabera.

12.artikulua. BAZKIDEEN ESKUBIDEAK

Eskubide hauek dituzte bazkideek:

- a. Kooperatibaren organoetako karguetarako kideak aukeratzeko eta aukeratua izateko eskubidea.
- b. Proposamenak egiteko eskubidea eta iritzia eta botoa ematekoa Batzar Orokorrean eta kooperatibaren gainerako organoen erabaki guztietan.
- c. Kooperatibaren jardura guztietan parte hartzeko eskubidea, bereizkeriarik gabe.
- d. Onuretatik eta zerbitzuetatik etekina ateratzeko eskubidea eta kooperatibak ematen dituen abantaila ekonomiko eta sozialak aprobetxatzeko.
- e. Beren eskubideak erabiltzeko eta zereginak betetzeko behar duten informazioa jasotzeko eskubidea, hurrengo artikuluan datorrena kontuan hartuta.
- f. Kapital sozialari egindako ekarpenak eguneratzeko eta, hala dagokionean,

berreskuratzeko eskubidea. Errektore Kontseiluak ekarpenak berreskuratzeko eskaerari erantzun beharko dio, eskatzaileak bazkide izaera galdu baino lehen. Onartuz gero, noiz itzuliko dion adierazi beharko dio.

- g. Bazkide guztiek, langileek barne, kooperatiban berdintasuneranzko urratsak egiteko politika eraginkor bat sustatze aldera, formakuntza espezifikoak jasotzeko eskubidea.
- h. Legeetatik eta estatutu hauetatik erator daitezkeen gainerakoetarako eskubidea.

Eskubide sozial horiek berdinak izango dira bazkide guztientzat, eta, horiek erabiltzeko orduan, kontuan izango dira lege-arauak, estatutu-arauak eta kooperatibako organoek behar bezala onartutako erabakiak.

13. artikulua. INFORMAZIO ESKUBIDEA. MUGAK ETA BERME SISTEMAK.

1. Bazkide orok eskubidea izango du:
 - a. Kooperatibaren estatutuen eta, baldin badago, barne-araudiaren kopia bat eskatzeko.
 - b. Kooperatibako bazkideen erregistro-liburua eta Batzar Orokorraren akta liburua aztertzeko eta akten eta bertan hartutako erabakien kopia zertifikatua eskuratzeko. Orobat, bazkideen erregistro-liburuan inskribatuta dauden zertifikatua edukitzeko, aldeztatik eskaera egin eta eskaeraren zergatia azalduta.
 - c. Berari eragiten dioten Errektore Kontseiluaren erabakien kopia zertifikatua eskatzeko.
 - d. Errektore Kontseiluaren informazioa jasotzeko, kooperatibarekiko bere egoera ekonomikoari buruz, eskatu eta hilabete igaro baino lehen.
 - e. Errektore Kontseiluari behar diren argibideak edo txostenak idatziz eskatzeko, kooperatibaren funtzionamenduaren edo emaitzen edozein kontuz; erantzuna eskaera egin eta 15 egun igaro ondorengo lehen Batzar Orokorrean jaso beharko du.
 - f. Urteko kontuak eta emaitzen erabileraren proposamena sozietatearen egoitzan eskura izateko, deialdian aztertuak izan daitezten.
 - g. Arestian aipatutako dokumentazioari buruzko azalpenak idatziz eskatzeko— Batzarra egin baino 5 egun lehenago gutxienez—, Batzarrean erantzun ditzaten.
 - h. Sozietatearen egoitzan, deialdiak irauten duen bitartean, Zaintza-Batzordearen kudeaketa-txostena edo, hala badagokio, kontu-ikuskapenak aztertzeko.
2. Aurreko zerrendan ezarritakoaz gainera, sozietatearen botoen gutxienez %10 ordezkatzen duten bazkideek idatziz eskatu ahalko dute, noiznahi, beharrezkoa zaien informazio guztia. Errektore Kontseiluak idatziz eman beharko die eskatu duten Informazioa, 30 egun igaro baino lehen. Edonola ere, behintzat 3 hiletik behin eta egokiena iruditzen zaien bidetik, kooperatibaren aldagai sozioekonomikoen berri eman beharko die Errektore Kontseiluak bazkideei edo haiek ordezkatzen dituzten organoei.
3. Errektore Kontseiluak arrazoituta ukatu ahalko du informazioa, eskaera arduragabekeria edo traba bada kooperatibaren legezko interesentzat, edo informazioa emanda interes horiek arriskuan jartzen badira. Hala ere, salbuespen horrek ez du balioko, ukatzen den informazioa Batzar Orokorrean

aurkeztu beharrekoa bada eta informazio-eskaria agertu direnen eta ordezkatura dauden botoen erdiarekin baino gehiagorekin egin bada. Gainerakoan, salbuespenak ez du balioko informazioaren bazkide eskatzaileek errekurtsioa aurkeztu eta batzarrak horrela erabakitzen badu.

4. Nolanahi ere, Errektore Kontseiluaren ezezkoaren aurka egin dezakete eskatzaileek, Euskadiko Kooperatiben Legean xedatutakoaren arabera.
5. Bazkideek jasoko duten dokumentuetan zein bestelako informazio euskarrietan hizkera inklusibo eta ez-sexista erabiliko da. Horrez gain, sexuaren aldagaia eta genero-adierazleak sistematikoki sartuko dira kooperatiben egiten diren estatistika, inkesta, datu-bilketa eta azterlan guztietan.

14. artikulua. BORONDATEZKO BAJA

1. Edozein bazkidek nahi duenean utzi ahalko du kooperatiba bere borondatez; horretarako, aurretik abisatu beharko du Kontseilu Errektorea, idatziz eta gutxienez hilabete lehenago, baldin eta arrazoi justifikaturen bat ez bada behintzat.
2. Borondatezko bajak justifikatuak eta ez-justifikatuak izan daitezke.
3. Kasu hauek hartuko dira borondatezko baja ez-justifikatutzat:
 - a) Berariaz hitzartuta dauden gutxieneko iraunkortasun-epeak ez betetzea, baldin eta Kontseilu Errektoreak, kasuan kasuko egoera kontuan hartuz, besterik erabakitzen ez badu behintzat; hala izanda ere, bazkideari eskatu ahalko zaio hartuak dituen konpromisoak betetzea eta kalte-galerak ordaintzea.
 - b) Bazkideak kooperatibaren jardunarekin lehian dauden jarduerak egiteko asmoa izatea.
4. Kasu hauek hartuko dira borondatezko baja justifikatutzat:
 - a) Kooperatiba zatitzea, besteren batekin bat egitea, klasez aldatzea, helburu soziala funtsean aldatzea eta, kapitalari nahitaez ekarpen berriak egin beharra erabaki bada, bazkideak erabakiaren kontra bozkatu izana edo, Batzar Orokor horretara joan ez bada, erabaki horren kontrako iritzia adierazten badu.
 - b) Kooperatiba beste sozietate mota bat bihurtzen bada, Euskadiko Kooperatiben Legean ezarritakotik eratortzen diren kasu guztiak.
 - c) Aurreko 3. zenbaki horretan jaso ez diren gainerako borondatezko baja guztiak.

15. artikulua. NAHITAEZKO BAJA

1. Bazkideak nahitaez utzi beharko du sozietatea estatutu hauetan eskatzen direnak betetzen ez baditu. Edonola ere, bazkideei nahitaezko baja emateko arrazoiak izango dira:

- i. Bazkide izateko eskatzen diren baldintzak galtzea.
 - ii. Sozietate loturarako hitzartutako denbora amaitzea.
 - iii. Kapital sozialari egin beharreko nahitaezko ekarpenei (hasierakoa, nahiz Batzar Orokorrak onartutako ekarpen berriak) lotutako betebeharrak ez betetzea.
 - iv. Lan-bazkideak legez ezarritako adinean erretiroa hartzea, edo baliaezintasun iraunkor osoa etortzea, edo kanporatua izatea.
 - v. Heriotza.
 - vi. Nortasun juridikoa azkentzea, kasua bada.
2. Nahitaezko baja Kontseilu Errektoreak erabakiko du, aurretik interesdunari entzun ostean, ofizioz, beste bazkideren batek edo interesdunak berak hala eskatuz gero.
 3. Kontseilu Errektorearen erabakia betearazi egin beharko da Errekurtsoen Batzordeak edo Batzar Orokorrak erabakia berretsi duela jakinarazten denetik aurrera edo behin errekurtsoa jartzeko epea igarotakoan. Erabakia betearaztekoa ez den bitartean, bazkideak Batzar Orokorrean bozkatzeko eskubidea izaten jarraituko du.
 4. Nahitaezko baja justifikatutzat hartuko da kasu hauetan: bazkide izateko betekizunak galdu izana ez denean gertatu bazkideak kooperatibarekiko betebeharrak betetzeari nahita utzi diolako edo nahitaezko bajaren bidez bidegabeko onura lortu duelako.

16. artikulua. BAJAREN ONDORIOAK ETA ERREKURTSOAK

1. Bazkide izateari uzteak kooperatibak eskaintzen dituen ondasun eta zerbitzuak ezin jaso ahal izatea dakar.
2. Bajen kalifikazioa Kontseilu Errektoreari dagokio. Bazkideren bat ados ez baldin badago bere bajaren kalifikazioari edo ondorioei buruzko erabakiekin (dela borondatezko baja, dela nahitaezkoa), kanporatzeko kasuetarako Euskadiko Kooperatibaren Legean ezarrita dauden errekurtsoak eta bideak erabili ahalko ditu.

17. artikulua. BAZKIDEEN FALTAK

Bazkideek egiten dituzten faltak, euren garrantzia, transzendentzia eta nahitasuna kontuak harturik, honela sailkatuko dira: arinak, astunak edo oso astunak.

Falta arinak honako hauek dira:

1. Errektore Kontseiluaren ustez, beste bazkide bat edo batzuekiko arrazoirik gabeko begirune edo errespeturik eza gertatu denean.
2. Kooperatibari bizilekuaren aldaketa ez komunikatzea hilabete bateko epean.
3. Organo eskudunen arau edo erabakiak ez betetzea.
4. Kooperatibak deitutako ekitaldi sozialetara eta, batik bat, Batzar Orokorretara ez joatea, arrazoi justifikaturik izan gabe.

Falta astunak honako hauek dira:

1. Bazkideak bete behar dituen karguak edo eginkizunak ez onartzea edo

- haietatik dimititzea, Errektore Kontseiluaren edo Batzar Orokorraren ustetan arrazoi justifikaturik izan ezean.
2. Kaltea eragin dezaketen kooperatibaren sekretuak urratzea.
 3. Ezarritako betebeharrak ekonomikoak ez betetzea.
 4. Agindu estatutarioak ez betetzea edo ekintza bat egitea, edo egiteari uztea, kooperatibarentzako kalte larria gerta daitekeenean.
 5. Falta arin asko egiten badira eta bazkidea aurreko 3 urteetan zigortua izan bada.

Falta oso honako hauek dira:

1. Bazkide batek guztien kapital edo sinadura soziala negozio partikularretarako erabiltzea.
2. Betebeharrak sozialak ez betetzea, kooperatiba kaltetuz.
3. Kooperatibarentzat kaltegarriak diren jokabideak egitea.
4. Betebeharrak ekonomikoak behin eta berriz ez betetzea.
5. Kooperatibarekin lehian aritzea eta garrantzitsuak diren datuak ezkutatzea.
6. Azken 3 urteetan falta astunak errepikatzea.
7. Kooperatibak bere bazkideekin duen harremanarengatik, konpromisokoak diren dokumentuak, sinadurak, zigiluak edo antzekoak faltsutzea.
8. Edozein indarkeria mota –matxista barne- eragitea, edozein dela bere intentsitatea edota gertatu den espazioa.

18. artikulua. FALTA SOZIALENGATIKO ZIGORRAK

Bazkideen faltak Kooperatibaren Barne-araudian garatuko dira, betiere oinarri hauen gainean:

1. **Falta arinak** badira:
 - a) Idatzizko ohartarazpena.
 - b) Gehienez ere urtebetez, botoa emateko eskubidea galtzea.
 - c) 25€ eta 100€ arteko diru-zigorra.
2. **Falta astunak** badira:
 - a) 1. zenbakiko guztiak.
 - b) Idatzizko ohartarazpena, zeina publiko egin ahalko den Errektore Kontseiluak hala erabakitzen badu.
 - c) Gehienez ere 2 urtez, botoa emateko eskubidea galtzea.
 - d) Kargu sozialetan aukeratua izateko gaitasuna galtzea ondoko 2 hauteskundeetan.
 - e) 101€ eta 400€ arteko diru-zigorra.
3. **Falta oso astunak** badira:
 - a) 1. eta 2. zenbakiko guztiak.
 - b) Gehienez ere 4 urtez botoa emateko eskubidea galtzea eta gehienez ere zortiz kooperatibako kargu sozial bat hartzeko gaitasuna galtzea.

- c) 401€ eta 1.000€ arteko diru-zigorra.
- d) Kanporatua izatea.

19. artikulua. ZIGORTZEKO PROZEDURAK

1. Falta sozialengatik zigorrak jartzea Kontseilu Errektoreari dagokio; horretarako, aurretik faltari dagokion espedienteak irekiko du.

Falten espedienteen dokumentu guztien bi ale beteko dira, eta aleetako bat kooperatibaren geldituko da artxibatuta.

2. Kargu-orria instruktore batek edo, gehienez ere, hiruk osatuko dute. Instruktoarek Kontseilu Errektoreak izendatuko ditu, bertako kideen artean, eta horien egitekoa izango da inkulpatutako bazkideari jakinaraztea faltaren behin-behineko kalifikazioa, falta horri dagokion zigor-proposamena eta deskargu-epea (gutxienez 10 egun, jakinarazten denetik zenbatzen hasita).

Deskargu-orria osatzea bazkideari dagokio, eta Kontseilu Errektoreari zuzendu behar dio. Gero, Kontseilu Errektoreak erabakiko du, falta sozialak egin dituen bazkideari entzun ostean (interesdunak entzunaldia onartzen badu), behin betiko zer kalifikazio eta zigor ezarriko zaizkion faltari.

3. Kontseilu Errektoreak larritzat eta oso larritzat jotako faltei buruz erabakitako zigoren kontra errekurtsioa jarri ahalko zaie Errekurtsioen Batzordean eta, halakorik ez bada, Batzar Orokorrean, jakinarazpena egiten denetik 30 eguneko epean. Azkenik, Batzar Orokorraren erabakiak inpugnatu ahalko dituzte interesdunek, Euskadiko Kooperatiben Legean ezarrita dagoen prozesu-izapidetaren bidez.
4. Falta arinak hilabeteko epean preskribatzen dira; astunak, 2 hilabeteko epean, eta oso astunak, 3 hilabeteko epean.

Preskripzio epea arau-haustea egiten den egunean hasiko da. Arau-hauste jarraituen edo iraunkorren kasuan, arau-haustea amaitu zenetik hasiko da epea.

Preskripzio epea eten egingen da zehapen prozedura hasten denean, eta berriro egingen da 4 hilabeteko epean ebazpena eman edo jakinarazten ez bada.

Interesduna jakitun izanda zigor-prozedura hasten denean, preskripzio-epea eten egingo da, eta berriro ere hasi egingo da preskripzio-epea, baldin eta zehapen-espedienteak etenda geratzen bada, ustez arau-haustea egin duenari ezin egotz dakiokeen arrazoiren batengatik, inolako ebazpenik eman edo jakinarazi gabe, lau hilabete bakoitzeko gehiagorik.

5. Zigor oro betearazi egin beharko da errekurtsioa aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunean, errekurtsorik aurkeztu ez bada, edo behin betiko erabakia hartu eta hurrengo egunean.

20. artikulua. KANPORATZEA

1. Kontseilu Errektoreak baino ezin du erabaki bazkide bat kanporatzea, eta soilik estatutu hauetan jasotako falta sozial oso larriagatik eta aurreko artikuluko 2. zenbakian ezarritakoaren arabera bideratutako espedientearen ondorioz.
2. Kontseilu Errektoreak erabakia bazkideari jakinarazi beharko dio, idatziz, erabakia hartzen denetik hamabost egun naturaleko epean.

Interesdunak erabaki horren aurka errekurtsua jarri ahalko du, jakinarazten zaionetik 30 eguneko epean, Errekurtsoen Batzordean eta, halakorik ez badago, Batzar Orokorrean.

3. Errekurtsuari buruzko ebazpena Errekurtsoen Batzordeak hiru hilabeteko epean emango du, interesduna bertan dela eta hari entzun ostean, eta, halakorik ez badago, Batzar Orokorrak hurrengo lehenbiziko saioan emango du, isilpeko bozketa bidez.
4. Kanporatzeko erabakia betearazi egin beharko da Errekurtsoen Batzordeak edo Batzar Orokorrak erabakia berretsi duela jakinarazten denean edo errekurtsua aurkezteko epea amaitzen denean, errekurtsorik aurkeztu ez bada.

Edonola ere, lan-bazkideak kooperatibari egiten dion lan-prestazioa eten ahalko da Kontseilu Errektoreak kanporatzeko erabakia hartzen duen egunetik aurrera, baina lan-aurrerakina jasotzeko eskubidea izaten jarraituko du behin-behinean, lanean jardungo balu bezala.

5. Errekurtsoen Batzordeak edota Batzar Orokorrak bazkidea kanporatzeko erabakia berresten badu, interesdunak erabakia inpugnatu ahalko du, jakinarazten denetik 2 hilabeteko epean, Euskadiko Kooperatiben Legean araututa dagoen prozesu-bidearen bidez.
6. Bestalde, lan-bazkideak kanporatu ahalko dira Batzar Orokorrak aurreikusitako eta onartutako falta sozio-laboral oso larriengatik, direla organo sozial horren erabaki espezifikoaren bidez onartuak, direla barne-araudian jasoak. Kanporatua izan den lan-bazkideak errekurtsua jarri ahalko du, barne-errekurtsoetarako bideak agortu ondoren, Lan Jurisdikzioaren aurrean; alde horretatik, kanporatze-erabakiaren jakinarazpena kaleratze- gutunaren parekotzat hartuko da.

21. artikulua. BARNE-ANTOLAMENDU FUNTZIONALERAKO OINARRIAK

1. Lanaren antolamenduari eta ordainsariari dagozkienak:
 - a) Kooperatibaren zuzendariari edo gerenteari dagokio lanaren antolamendua eta laneko disziplina ezartzea eta aplikatzea, Kontseilu Errektoreak emandako eskuordetzaren arabera.

- b) Lan-bazkideek lanpostuaren arabera eta lanean izandako eraginkortasunaren edo lanari ateratako etekinaren arabera lan-aurrerakinak jasoko dituzte.
 - c) Lan-bazkideek hilerok jasoko dituzte lan-aurrerakinak, eta inola ere ezingo dira izan lanbide arteko gutxieneko soldata baino txikiagoak, hileko zenbatekoan.
 - d) Lan-aurrerakinak kooperatibaren emaitza ekonomikoen kontura jasotzen diren aldizkako sariak dira, eta ez dute, beraz, soldata-izaera. Horrenbestez, lan-aurrerakinen zenbatekoa emaitza horien arabera izango da azken batean.
 - e) Lan-aurrerakinak, urtean egin beharreko lanorduak eta Euskadiko Kooperatiben Legean aipatzen diren gainerako alderdiak Kontseilu Errektoreak zehaztuko ditu, baina lan-aurrerakinen gehieneko zenbatekoak ezingo du gainditu sektore bereko soldatapekoentzat lan-jardueraren eta lanbide-kategoriaren arabera hitzarmen kolektiboan ezarrita dauden ordainsarien ehuneko ehun eta berrogeita hamar.
2. Pertsona fisikoei dagozkien zerga-kontuak lan-bazkideen ardurapekoak izango dira, eta inola ere ezingo ditu subrogatu kooperatibak.
 3. Lan-bazkideei lan-erregimenaren aldetik dagozkien kontuak barne-araudian arautuko dira, betiere Estatutu hauetan ezarritakoa betez.

Gizarte Segurantzaren estaldurari dagokionez, lan-bazkideak (bai finkatuak eta bai probaldian daudenak), besteren konturako langileekin parekatuko direnez, Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean sartuko ditu kooperatibak.

4. Kooperatibako soldatapeko langileek ezingo dute jaso sektore bereko soldatapekoentzat lan-jardueraren eta lanbide-kategoriaren arabera hitzarmen kolektiboan ezarrita dauden ordainsarien ehuneko ehun eta berrogeita hamar baino gehiago.

III. KAPITULUA.- ORGANOAK

22. artikulua. ORGANO SOZIALAK

Sozietate-kooperatibaren organoak hauek dira:

1. Batzar Orokorra
2. Errektore Kontseilua
3. Zaintza-batzordea
4. Errekurtso-batzordea

Batzar Orokorretik eratorritako organo guztietan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatuko da, baita karguen izendapenetan zein edonolako taldeak osatzean ere.

Sozietate kooperatibo honetan bizitza pertsonala, familia eta lana bateratzeari begirako neurriak zehaztuko dira kide guztien parte hartzea bermatzeko.

Behar bezala funtzionatzeko eta garatzeko egokiak iruditzen zaizkion organo guztiak eratu ahalko ditu kooperatibak, eta bakoitzari nahi dituen ahalmenak emango dizkio, legeak organo bakoitzarentzat berariaz ezarriak dituenak izan ezik.

23. artikulua. BATZAR OROKORRA

Batzar Orokorra (bildutako bazkideek osatua) borondate sozialaren adierazpenaren goreneko organoa da.

Batzar Orokorraren erabakiak bazkide guztientzat bete beharrekoak izango dira, baita disidente edo batzarrera joan ezin izan direnentzat ere. Hala ere, eta Kooperatiben Legeak dioena aintzat hartuz, erabaki horien kontra egin ahal izango da.

24. artikulua. BATZAR OROKORRAREN OSAERA

Kooperatibaren norabideak izaera komunitarioa gordetzen duela bermatzeko, honela banatuko da Batzar orokorraren osaera bazkide mota desberdinen artean:

a. Bazkide erabiltzaileak:	% 60
b. Lan-bazkideak:	% 10
c. Bazkide hornitzaileak:	% 10
d. Bazkide laguntzaileak:	% 10
e. Parte sozialaren bazkide titularra, botoa duena:	% 10

Bazkide motaren bat ez balego, (lan-bazkideak, Bazkide hornitzaileak, Bazkide laguntzaileak, Bazkide parte sozialaren bazkide titularra, botoa duena) bere ehunekoa bazkide erabiltzaileenari metatuko zaio.

25. artikulua. BATZAR OROKORRAREN ESKUMENAK

Batzar Orokorrak kooperatibaren edozein gairi buruz eztabaidatu eta erabakiak har ditzake, baldin eta beste organo sozial baten esku ez badago. Dena den, bere erabakia honako kasuetan beharrezkoa da:

- a. Errektore Kontseilua, Zaintza Batzordea, Errekurtso Batzordea, kontu-ikuskariak eta likidatzaileak izendatzea eta izendapen horiek baliogabetzea.
- b. Kudeaketa sozialaren azterketa eta urteroko kontuen onarpena, hala nola, kudeaketa txostenaren eta erabilgarri dauden soberakinen erabileraren onarpena eta galeren egozteak.
- c. Estatutuak aldatzea eta kooperatibaren barne-araudia onartzea eta aldatzea, beharrezkoa bada.
Estatutuak aldatu ahal izateko, Batzar Orokorrean hala erabaki beharko da, betiere baldintza hauek betez:

- i. Proposamena egiten dutenek txosten bat aurkeztu behar dute, idatziz, eta txostenean zergatiak azaldu.
 - ii. Deialdian argi eta garbi azaldu behar da zer aldatu nahi den.
 - iii. Deialdiaren berri ematean, berariaz adierazi behar da bazkide guztiek eskubidea dutela bai proposatutako aldaketen testua osorik eta bai aldaketen zergatiak azaltzen dituen txostena egoitza sozialean aztertzeko, eta, orobat, dokumentu horiek doan bidali edo eman diezazkietela eskatzeko.
 - iv. Erabakia onartzeko, gehiengo arrunta beharko da, estatutu hauetan xedatutakoaren arabera. Estatutuak aldatzeko erabaki hori eskritura publikoan jaso eta Kooperatiben Erregistroan inskribatu beharko da.
- d. Derrigorrezko diru-sarrera berrienonarpena; borondatezko eta kolaboratzaile-bazkideen diru-sarreraren onarpena(egonez gero); kapital sozialean egin beharreko diru-sarreraren kopurua berritzea; bazkide berriek egin beharreko ekarpena finkatzea; sarrera-kuotak edo aldizkakoak ezartzea; eta kapital sozialean egindako diru-sarrerengatik ordaindu behar den interesa ezartzeko tipo edo oinarriak.
 - e. Obligazio, parte-hartze titulu edo beste finantzaketa moten jaulkipena, negoziatu ahal diren baloreen bidez.
 - f. Kooperatibaren bat-egitea, zatiketa, eraldaketa, desegitea eta berraktibatzea.
 - g. Estatutuen arabera, kooperatibaren egitura ekonomiko, sozial, antolatzaile edo funtzionalaren funtsezko aldaketa dakarren edozein erabaki.
 - h. Bigarren edo maila handiagoko kooperatibak, kooperatiba-taldeak eta antzeko beste entitate batzuk sortzea, bai eta horietara atxikitzea edo horietatik bereiztea ere.
 - i. Euskadiko Kooperatiben Legean xedatutakoarekin bat etorriaz, sailen eraketa eta desegitea.
 - j. Errektore Kontseilu, Zaintza Batzordeko edo Errekurtso Batzordeko kideen, kontu-ikuskarien eta likidatzaileen aurkako erantzukizun sozialaren jardura.
 - k. Estatutuetan edota lege-arauetan aipatzen diren beste kasu guztiak.

Batzar Orokorrari dagozkion eskumenak , zeinen gainean arauz erabaki behar du, ezin dira eskuordetu indarreko legediaren arabera.

26. artikulua. BATZAR-MOTAK: OHIKOA, EZOHIOA, UNIBERTSALA

Batzar Orokorrak ohikoak edo ezohikoak izan daitezke.

Errektore Kontseiluak, urtean behin, Ohiko Batzar Orokorra deitu behar du, ekonomia-ekitaldia itxi eta 6 hilabete pasatu baino lehen. Honen funtzio orokorrak hauexek dira: Errektore Kontseiluak egindako kudeaketa aztertzeko, kontuak eta balantzeak onartzea ,beharrezkoa bada, eta emaitzen aplikazioa adostea.

Aurreko paragrafoan aipatutakoarekin bat ez datozen Batzar Orokorrak guztiak

ezohikoak izango dira.

Batzar Unibertsala balio osoz eratzat joko da bazkide guztiak bertan direla, deialdirik eta gai-zerrendarik egin beharrik gabe, aho batez erabakitzen badute batzarra egitea eta gai-zerrenda.

27. artikulua. OHIKO ETA EZOHIKO BATZARREN DEIALDIA

1. Errektore Kontseiluak deituko du Batzar Orokorra.
2. Sozietatearen ekitaldia itxi eta ondoko 6 hilabeteen barruan deitu beharko du Errektore Kontseiluak Ohiko Batzar Orokorra. Ez badu epe horren barruan deitzen, bazkideek idatziz eska diezaioke Errektore Kontseiluari betebeharrak betetzeko. Errektore Kontseiluak idatzia jaso eta 15 egunera ez badu erantzunik eman, bazkideak deialdi judiziala eskatu ahalko dio sozietatearen egoitzaren lehen auzialdiko epaileari.
3. Ezohiko Batzar Orokorra honako hauek dei dezakete:
 - a. Errektore Kontseiluak berak.
 - b. Zaintza Batzordeak.
 - c. Bazkideek, gutxienez botoen %20 ordezkatzen baldin badute.

b) eta c) kasuetan, Errektore Kontseiluari egin beharko diote eskaera, idatziz, eta idatzian, eguneko gai-zerrenda bat agertuz. Eskaera jaso eta 30 egun bete baino lehen deitu beharko da batzarrerara. Ez bada epe horretan deitzen, epai bidezko deialdia egin ahalko da, aurreko 2. zenbaki horretan agertu den moduan.
4. Batzar Orokorra sozietatearen egoitzan iragarri beharko da, modu agerian, eta bazkideei helaraziko zaie modu telematikoa.
5. Deialdian, behinik behin, data, ordua eta biltokia azaldu beharko dira, lehen, bigarren eta hirugarren deialdian, eta deialdien artean, ordu erdiko tartea egon beharko da. Gai-zerrendak, berriz, argia eta zehatza izan beharko du, eta behar besteko azalpenak ekarriko ditu.
6. Batzar Orokorraren deialdia batzar-eguna baino gutxienez 10 eta gehienez 60 egun lehenago egin beharko da publiko.
7. Gai-zerrendan gairen bat edo bat baino gehiago sartu nahi duten bazkideek sozietatearen botoen %10 izan beharko dute, gutxienez, eta idatziz eskatu beharko diote Errektore Kontseiluari, deialdia egin eta ondoko 5 egunen barruan. Errektore Kontseiluak gai-zerrenda berri beharko du, eta 4. zenbakian azaltzen den iragartzeko era bera erabili beharko da, batzarra izan baino 4 egun lehenagotik behintzat; edonola ere, deialdia ezingo da atzeratu.

28. artikulua. BATZAR OROKORRAREN FUNTZIONAMENDUA

1. Batzar Orokorra, unibertsala ez bada behintzat, sozietatearen egoitzan izango da, betiere Errektore Kontseiluak hura toki egokia ez delako, horretarako beste egoitzaren bat finkatzen ez badu. Era berean, geografikoki urrun dauden bazkideek parte hartzeko eta akordioak bideokonferentzia bidez edo antzeko beste sistema baten bidez baliozko eran hartzeko borondatea adierazteko aukera eman ahal izango du Batzar Orokorrak. Sistema horren bidez, bi norabidetan eta aldi berean komunikatu ahal izango dira irudia eta soinua, baita ikusizko, entzunezko eta ahozko interakzioa erraztuko da.
2. Batzar Orokorra behar bezala osatuta egongo da, lehen deialdian, botoen gehiengoa ordezkatuta badago; bigarren deialdian, botoen %10 edo 100 botoz ordezkatuta badago; eta hirugarren deialdian edozein boto eta ordezkari kopururekin.
3. Batzar Orokorrera ager daitezke deialdia egiteko orduan bazkide diren guztiak, beti ere ez badaude eskubide horretaz gabetuak. Batzarrera agertzen ez den bazkideak idatziz azal dezake, edozein Batzar Orokorrerarako, nor egiten duen bere ordezkari.

Bazkide batek ezingo ditu ordezkatu, bere buruaz gain, 2 pertsona baino gehiago. Halaber, ezkontideak edo lehen mailako senideek ordezka dezakete bazkide erabiltzaile bat, eta gaitasun osoa izango dute edozein batzarretan, beti ere bazkideak ez baditu berariaz baiogabetu.

Edonola ere, beharrezkoa izango da ordezkaritza idatziz azaltzea, bazkidearen baimenarekin eta sinadurarekin, Batzar Orokor bakoitzean, eta ezkontidearen edo senidearen onarpenarekin eta sinadurarekin.

Zaintza Batzordeak erabakiko du ordezkaritza-agiriak baliozkoak diren eta horiekin nahiko ote den.

4. Batzar Orokorraren buruan Errektore Kontseiluko lehendakaria jarriko da, eta, hark ezin badu, lehendakariordea, eta, horrek ere ezin badu, batzarrak erabakiko du nor jarri toki horretan.

Lehendakariaren ardura da erabakiak zuzentzea, batzarra ez desbideratzea eta gai-zerrendan ez dauden gaien gainean erabakiak ez hartzea –beti ere ez badira legeak bereziki baimentzen dituen kontuak–, batzarreko gaien ordenari eustea eta lege-arauak zaintzea.

Idazkari arituko da Errektore Kontseiluko idazkaria bera, eta, ezin badu, Batzar Orokorrak erabakiko du zein bazkide jarri horretan.

5. Ez dute baliorik izango eguneko gai-zerrendan ez dauden kontuen inguruko akordioek, beti ere ez badira legeak bereziki baimentzen dituenak.

Edonola ere, Batzar Orokorrean horretarako txanda iristen denean, edozein bazkidek egin ditzake proposamenak eta iradokizunak hitzez; baina haiei

buruzko erabakiren bat hartu behar bada, beste Batzar Orokorrak bat deitu beharko da gai horiek lantzeko, betiere boto guztien gutxienez %20 alde baldin badago.

6. Bozketak sekretua izango da legean eta estatutuetan hala badator, eta bertaratutako bazkideen eta ordezkarien %10ek behintzat hala eskatzen badute. Gainerako kasuetan, lehendakariak erabakiko du nola egin.
7. Errektore Kontseiluko kideek Batzar Orokorrera joan beharko dute. Bazkide ez diren teknikariek, zuzendariek eta kudeatzaileek, berriz, iritzia emateko eskubidea bai izango dute, baina ez botatzekoa, eta Errektore Kontseiluak ala eskatzen duenean, parte hartu beharko dute.

Batzar Orokorrak baimena eman diezaioke beste edozeini bileran parte hartzeko.

29. artikulua. ERABAKIAK HARTZEA

Batzar Orokorrak erabakiak hartuko ditu bertaratutako edo ordezkaturiko boto sozialen gehiengo soilarekin. Salbuespen izango dira Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legeak edo estatutu sozialek gehiengo indartua eskatzen duten kasuak. Gehiengoak osatzeko, ez dira zenbatuko ez boto zuriak ez abstentzioak.

Batzar Orokorraren bozketak telematikoki egin ahalko dira, boto-emaile guztiek parte hartzeko baldintza berdinak dituztela bermatuz. Kasu honetan, parte hartzaileak konektaturik dauden bazkide guztiak izanen dira. Bozketa telematikoki egin ahal izateko, kooperatibak kanal bat eskaini beharko du bazkideak, kooperatibarekin kontaktatu ahal izateko. Kanal horrek bazkidearen identitatea egiaztatu beharko du, baita botoa eman duela eta konfidentziasunez bozkatu duela ere.

Batzar Orokorrak, izaera unibertsala izan ezean, ezin du gai-zerrendan ez dauden gaiei buruzko erabakirik hartu, honako kasuetan izan ezik:

1. Beste Batzar Orokorrak baten deialdia.
2. Kontuen zentsura Kooperatibako kideek edo kanpoko pertsona batek eginda.
3. Errektore Kontseiluko kideen aurka egindako erantzukizun soziala edo kargu sozial bat baliogabetzea.

30. artikulua. BOTO ESKUBIDEA

1. Bazkide bakoitzak, pertsona fisikoa zein juridikoa izan, boto bat izango du. Edonola ere, bazkide erabiltzaileak osotasunean boto guztien %60 izango dira, gutxienez; lan-bazkideak, gehienez, boto guztien %10; bazkide hornitzaileak, gehienez, boto guztien %10; laguntzaileak, gehienez, boto guztien %10 ; eta botoa duen parte sozialaren bazkide titularrek ezin izango dute boto guztien % 10

gainditu. Lan-bazkiderik, bazkide hornitzailerik, laguntzailerik edo boto-eskubidea duen parte sozialaren titularrik ez dagoen kasu guztietan, horiei dagozkien botoak bazkide erabiltzaileei dagozkie.

2. Bazkideak ez du izango boto-eskubiderik, honako interes-gatazka hauek baldin badaude:
 - a. Hartu beharreko erabakiak zuzenean eta eskusiboki eragiten baldin badio, baldin eta ez bada, diziplina dosierra ireki zaion gehiengo baten parte.
 - b. Kooperatibaren gaineko erantzukizun-ekintzaren baten subjektua baldin bada.

31. artikulua. GEHIENGOAK

1. Batzar Orokorreko erabakiak behar bezala emandako botoen erdia baino gehiagorekin hartuko dira; ez dira zenbaketan sartuko ez zuriak, ezta abstentzioak ere, ez badira legeak edo estatutu hauek gehiengo indartua izatera behartzen dituzten kasuak.
2. Kooperatiba aldatzeko, bateratzeko, zatitzeko edo desagiteko, agertu diren bazkideen eta ordezkatura dauden botoen bi heren beharko dira, baldin eta Batzar Orokorrera agertu direnak ez badira osotara kooperatibako botoen %75 behintzat.
3. Errektore Kontseiluko kideak kargutik kentzeko agertu diren bazkideen eta ordezkatura dauden botoen bi heren beharko dira.

32. artikulua. BILERAREN AKTA

1. Batzar Orokorrean hartutako erabakiak aktan jasoko dira. Akta idazkariak idatziko du, eta, gero, akta-liburuan jasoko du, datu hauek adierazita:
 - a) Bilera noiz eta non izan den.
 - b) Deialdia noiz eta zer modutan egin zen, Batzar Orokorreraren unibertsalak direnetan izan ezik.
 - c) Deialdiaren testua, osorik.
 - d) Zenbat bazkide izan diren batzarrean (zehaztu egin behar da zenbat bertaratu diren pertsonalki eta zenbat izan diren ordezkatuak), eta batzarra lehen, bigarren edo hirugarren deialdian egin den.
 - e) Eztabaidatu diren gaien laburpena, eta aktan jaso daitezela eskatutako iritzien laburpena.
 - f) Hartu diren erabakien edukia.
 - g) Bozketen emaitzak, eta erabaki bakoitza zenbateko gehiengoarekin hartu den. Erabakiaren aurkako botoa eman duenak hala eskatzen badu, aurkakotza hori ere jaso behar da.
 - h) Aktaren onarpena, bilera bukatu ondoren hala gertatzen bada.

2. Batzarrean izan diren pertsonen zerrenda aktaren hasieran jasoko da, edo aktari eranskin gisa erantsiko zaio, idazkari-lanak egin dituenaren sinadura eta lehendakari-lanak egin dituenaren oniritzia dituela. Batzarrean izan diren pertsonen zerrenda hori fitxategi bidez ere osatu ahalko da, edo euskarri informatikoan jaso, betiere erregistroko erregelamenduan ezarrita dauden baldintzak betez.
3. Akta Batzar Orokorrak berak onartu ahalko du, batzarra egin ondoren, edo, bestela, eta nahitaez, hamabost eguneko epean lehendakari-lanak egin dituenak eta batzarrek izendatutako bi bazkidek onartu beharko dute; azken kasu horretan, bi bazkide horiek eta idazkari-lanak egin dituenak akta sinatu beharko dute.
4. Batzar Orokorrean izan den edonork eskubidea izango du aktaren edo batzarrean hartutako erabakien testu osoaren ziurtapenak eskatzeko. Ziurtagiria egiten den egunean idazkari den pertsonak emango ditu ziurtapen horiek, lehendakariaren oniritziarekin.
5. Erabakitakoak onartua izan den unetik aurrera izango du ondorioa.
6. Erregistroan inskriba daitezkeen erabakiak Kooperatiben Erregistroan aurkeztu beharko dira, hogeita hamar eguneko epean, akta onartu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

33. artikulua. BATZAR OROKORRAREN ERABAKIAK INPUGNATZEA

1. Batzar Orokorrak hartutako erabakiak inpugnatu ahalko dira, legearen edo estatutu hauen aurkakoak badira, edo kooperatibaren interesen kalterako eta bazkide baten edo gehiagoren edo hirugarrenen mesederako badira.
2. Erabaki bat ezingo da inpugnatu, hura ondoriorik gabe utzi bada edo baliozkoa den moduren batean beste erabaki batez ordeztu bada. Inpugnatzeko akzioetarako legitimazioa dute hauek:
 - a. Bazkide guztiek.
 - b. Kontseilu Errektoreko kideek.
 - c. Zaintza Batzordeko kideek.
 - d. Interes legitimoa duen edozein hirugarrenek.
3. Inpugnazio-akzioa urtebeteko epean iraungiko da, erabakiak ordena publikoaren aurkakoak direnean izan ezik.
4. Artikulu honetan aurreikusitako iraungitze-epeak erabakia hartu zenetik aurrera hasiko dira zenbatzen; erabakia Kooperatiben Erregistroan inskribatzekoa bada, berriz, inskribatzen den unetik aurrera.
5. Inpugnazio-akzioak Euskadiko Kooperatiben Legean ezarrita dagoenaren arabera tramitatuko dira.
6. Inpugnazio-akzioaren ondorioz emandako epaia hura baiestekoa bada, bazkide guztiengan izango ditu ondorioak.

34. artikulua. ERREKTORE KONTSEILUA

Kontseilu Errektorea kide anitzeko kudeaketa-organoa da, eta hari baino ez dagokio kooperatibaren ordezkaritza. Horretaz gain, Kontseilu Errektoreak baliatuko ditu legean edo estatutu hauetan beste organo sozial batzuentzat berariaz erreserbatuta ez dauden eskumen guztiak.

1. Kontseilu Errektorearen eskumen espezifikoak dira:
 - a. Bazkideen onarpena eta baja erabakitzea, betiere estatutu hauetan ezarritakoaren arabera.
 - b. Kooperatiba ordezkatzeta, delegatzeko eskumenarekin eta ardura osoz, edozein ekitaldi eta kontratu motatan, eta, batik bat, partaide den entitateetako organo sozialetan.
 - c. Zuzendari nagusia edo gerentea izendatzea, eta, hark proposatuta, sailetako zuzendariak izendatzea, bai eta haiek kargutik kentzea eta haien eskumenak, betebeharrak eta ordainsariak finkatzea ere. Beharrezkoa denean, haien aurrakako erantzukizun-akzioak gauzatzea.
 - d. Langileen baldintza ekonomikoak eta lankidetzeta-baldintzak hitzartzea. Edonola ere, kooperatibako besteren konturako langileen ordainsariak edo, baldin badaude, lan-bazkideen ordainsariak ezingo dira inola ere handiagoak izan sektore bereko soldatapekoentzat lan-jardueraren eta lanbide-kategoriaren arabera hitzarmen kolektiboan ezarrita dauden ordainsarien ehuneko ehun eta berrogeita hamar baino.
 - e. Kooperatibaren martxa antolatzea, zuzentzea eta kudeatzea.
 - f. Gai hauei buruzko ohiko erabakiak hartzea: estatutu hauetan jasota dauden eskubideekin eta betebeharrekin lotutako gaiak, lanaren antolaketarekin lotutakoak, eta langileen lan-erregimenari eta diziplina-araudiari buruzkoak; batik bat, arrazoi ekonomikoek, teknikoek, antolamenduzkoek, ekoizpenezkoek edo ezinbesteko kausagatik, beharrezkoa denean.
 - g. Estatutuetako eta araudiko aginduak edo Batzar Orokorraren erabakiak egoki betearazteko beharrezkoak diren araudi funtzionalak onartzea.
 - h. Helburu soziala gauzatzeko behar edo komeni diren ekitaldiak eta kontratuak egitea, alde batera utzi gabe ondasun higiezinak erostea edo besterentzea, eskubide errealak eratzea, baita hipotekarena eta araudi berezikoa den errentamenduarena ere, eta kooperatibak baimenduak dituen edozein motatako negozioak eta eragiketak egitea.

- i. Sozietateari zor zaion diru kopuru oro erreklamatzeari eta kobratzeari, baita huetan ere: Ogasunaren Ordezkaritzetan, ministerioetan, Gordailu Kutxa Orokorrean eta haren sukurtsaletan, eta gainerako bulego, institutu, entitate eta erakunde publiko nahiz pribatu guztietan, izan Espainiako estatukoak, atzerrikoak edo Europar Batasunekoak. Eta, oro har, betebeharrak guztiak bete daitezela eskatzea, eta, horretarako, dagozkien ordainketa-gutunak formalizatzea ordainagiritan eta edozein likidazio edo hitzarmen mota onartzea.
- j. Transakzio eta eragiketa hauek egitea:
 - Sozietatearen funtsak eta ondasunak erabiltzea, erreklamatzeari, jasotzeari eta kobratzeari, bai partikularrengandik eta bai bulego publikoetatik, eta, horretarako, Kutxa Orokorrean eta sozietatearen interesetarako komeni den lekuan gordailuak eratzea edo handik ateratzea.
 - Sozietatearen izenean sinatzea eta jardutea, estatuko entitateekin edo atzerrikoekin egin beharreko era guztietako banku-eragiketetan, baita Espainiako Bankuarekin egin beharrekoetan ere; besteak beste, ondorengoak irekitzea, ixtea eta erabiltzea: aurrezki-libretak, epekoak diru-ezarpenak eta banku- gordailuak, bai esku-dirutan, bai kreditutan eta bai baloretan.
 - Kanbio-letrak, agindurako zor-agiriak eta gainerako merkataritzako efektuak eta igorpenak negoziatzea, deskontatzea, interbenitzea, konpentsatzea, adieraztea, kobratzea, ordaintzea, salbuestea, onartzea, abalatzea, endosatzea eta protestatzea, ez onartzeagatik edo ez ordaintzeagatik eta ziurtasun handiago baterako.
 - Edozein salgai motarekin eragiketak egitea.
 - Kooperatibarenak izanik korrespontsalen esku dauden funtsak eta ondasunak erabiltzea.
 - Segurtasun-kutxak alokatzea eta irekitzea.
 - Maileguz dirua hartzea, kooperatibaren eta haren baloreen gaineko berme pertsonalarekin.
 - Kreditu ez-endosagarriak transferitzea.
 - Merkataritza-eragiketak fidantzatzea.
 - Kreditu-polizak abalatzea.
 - Funts-, errenta-, kreditu- edo balore-transferentziak egitea, dirua igortzeko edo mugitzeko edozein prozedura erabiliz; kontu-saldoak eta kontu-kitapenak onartzea; gordailuak edo fidantzak eratzea eta ateratzea; kontuak osatzea; trukeak egitea, eta abar. Horiek guztiak Espainiako Bankuan nahiz Banku Ofizialean egin ahalko ditu, bai eta

bestelako banketxe eta aurrezki pribatuko entitateetan ere, hala estatukoetan, nola atzerrikoetan.

- Kooperatibarekin lotura ekonomikoren bat duten pertsonei edo entitateei sozietatearen izenean berme ematea, fidantzatzuz, abala emanaz edo beste edozein modutan, betiere egintza helburu sozialaren barruan badago, zuzenean edo zeharka.
 - Lehiaketetan eta enkanteetan parte hartzea, era guztietako kontratuak egitea (egoki iritzitako baldintzetan), eta horiek zuzentzea, aldatzea edo deuseztatzea.
- k. Batzar Orokorrak erabakitako interesak noiz ordaindu erabakitzea.
- l. Kooperatibari komeni zaizkion eragiketak (kredituak, maileguak edo sinadura-bermeak) adostea.
- m. Entitate publiko eta pribatuen aurrean abalak ematea, eta zuzenbidez onartuta dagoen edozein titulu mota (zor publikokoak edo balore higigarri edo higiezinak) erosi, saldu, harpidetu eta gordailutzea, eta, are, horiek komenigarria ikusten den moduan eraldatzea.
- n. Batzar Orokorrak erabakitakoa kontuan hartuz, ekarpenak harpidetzeko, eta obligazioak, partaidetza-tituluak edo partaidetza bereziak jaulkitzeko beharrezkoa dena erabakitzea.
- o. Funts erabilgarrien inbertsio zehatza zehaztea, aurrekontuak egitea, gastuak baimentzea, eta kooperatibaren ahalordedun eta ordezkari izango direnak izendatzea, bai eta bakoitzari egoki iritzitako ahalmenak ematea ere.
- p. Ohiko eta ezohiko Batzar Orokorrarako deiak egitea, eta haietan erabakitakoak gauzatzea.
- q. Pertsona zehatzei ahalordeak ematea edo kentzea, sozietatearen negozioko zenbait adar zuzentzeko edo zenbait helburutarako.
- r. Estutu hauen interpretazioari buruz sortzen diren zalantzak argitzea, eta hurrengo Batzar Orokorrean horren berri ematea.
- s. Estatutu hauetan bereziki esleitutakoak.
- t. Kontseilu Errektoreko kideek karguari uko egindakoan, bete gabeko postuak ordeztu behar direnean eta, oro har, organoaren beraren barne-erregulazio funtzionalari buruzko gaiak sortzen direnean, egoki diren erabakiak hartzea.
- u. Batzar Orokorrari Estatutu Sozialen aldaketak eta Barne-araudiaren onarpena eta aldaketa proposatzea.
- v. Urtero, Ohiko Batzar Orokorrari urteko kontuak aurkeztea eta soberakin garbiak nola banatu edo galerak nola egotzi proposatzea.
- w. Epaitegi eta Auzitegi arrunt edo berezien aurrean eta Estatu, Lurralde-Administrazio Autonomo, Probintzia edo Udalerriko bulego, agintari, korporazio edo erakundeen aurrean kooperatibari dagozkion eskubide edo

akzioak egikaritzeko komenigarria iruditzen zaiona erabakitzea, bai eta errekurso arrunt eta apartekoak jartzeari buruz ere, eta horretarako, ordezkari, prokuradore edo letraduak izendatzea, kooperatiba ordezkari eta defenda dezaten, eta pertsona horiei egoki diren ahalmenak ematea, beharrezkoa den eran, baita edonolako adiskidetze, espediente, auzi, erreklamazio, errekurso edo jarduketatan eta edozein prozedura-egoeratan ados jartzeko edo atzera egiteko, prozedura geldiaraztea eskatzeko eta beharrezko izan litekeen guztirako ere, zabaltasun osoz amore ematea barne.

- x. Sute-arriskuetaarako, garraiorako, lan-istripuetarako, lapurretetarako eta gainerakoetarako aseguruak kontratatzea, horien primak ordaintzea eta aseguratzailen kobrantza eskatzea, eta formulatutako erreklamazio guztien transakzioa egitea.
- y. Ordainketak eteteko edo kiebra jotzeko eta kooperatiba desegiteko espedienteak sustatzea, eta prozesu horretan bere eskumenekoak diren faseak betetzea.
- z. Batzar Nagusiari kooperatibaren desegitea proposatzea.

- 2. Aurreko zerrenda horrek azalpen gisa balio du soil-soilik, eta ez ditu mugatzen Kontseilu Errektorearen eskumenak; legeak berariaz beste Organo Sozial batzuen aginpidekotzat gorde gabeko guztian, eskumena izan ahalko du.

35. artikulua ERREKTORE KONTSEILUAREN OSAERA ETA XEDAPENAK

- 1. Errektore Kontseilua 5 eta 9 pertsona bitartekoa izango da. Horietatik, Kontseiluak hautatuko du, lehenengo bilkuran, lehendakaria, lehendakariordea eta idazkaria. Batzar orokorraren osaketaren isla bermatzeko, eta Euskadiko Kooperatiben Legean jasotakoarekin bat etorritik, bazkide eta bazkide talde desberdinak Euskadiko Kontseiluko kide izango dira.
 - a. • Bazkide erabiltzaileak 5
 - b. • Lan-bazkideak.....1
 - c. • Bazkide hornitzaileak.....1
 - d. • Bazkide laguntzaileak..... 1
 - e. • Parte sozialaren bazkide titularra, botoa duena.....1

Bazkide mota guztiak progresiboki sartuko dira, kooperatibaren barruan pertsona mota horien presentzia gehitzen doan heinean, kontseilu errektoreko pertsona kopuruaren osaera handituko da.
- 2. Behin kooperatiba eratuta, Kooperatibaren bazkideek Errektore Kontseiluko kideak hautatuko dituzte, Batzar Orokorrean, isilpeko bozketa bidez, balioz emandako botoen gehiengoarekin eta multzo bakoitzean aurkeztutako hautagaien artean.

Bozketaren batean berdinketa gertatuz gero, lehenengo paragrafoan zehaztutako irizpideetara egokitzen den pertsona hautatuko da, Errektore Kontseiluan ordezkari gisa txiki den taldeko hautagaia lehenesteko.

Talde bereko hautagaien kasuan, kooperatibako bazkide gisa antzintasun handiena duen pertsona hautatuko da.

Aurreko irizpideak hautagaien arteko berdinketa ezin badute hautsi, Batzar

Orokor bereborean bozketa errepikatuko da berdinketa izan duten pertsonen artean hautatzeko.

3. Errektore Kontseiluko kideen kargua 4 urtetarako izanen da. Bi urtero Errektore Kontseiluarenerdia berrituko da.
4. Kontseilari kargua bazkide betebeharretakoa bat da. Barne-araudian zehaztuko da karguari uko egiteko aukera.
Uko egitearen kalifikazioa Batzar Orokorrean edo Errekurtso Batzordean errekurritu ahal izango da, nahitaezko bajarentzat ezarritako baldintza eta epe berdinetan.
5. Batzar Orokorrek erabaki dezake, Gai Zerrendan agertu beharrik gabe, Errektore Kontseilua osatzen duten pertsona guztiak edo batzuk kargutik kentzea, nahiz eta kasu horretan bertaratutakoen eta ordezkaturakoen botoen bi hereneko gehiengo kualifikatua behar izan kargugabetze horiek onartzeko.
6. Kontseilari postuak ez du ordainsari eskubiderik. Hala ere, karguak sortzen dituen gastu guztiak konpentsatu beharko dira.

36. artikulua. KARGUEN EGITEKOAK

1. Errektore Kontseiluko lehendakariari dagokio:
 - a. Kooperatiba ordezkatzeko, Errektore Kontseiluaren izenean, gaia edozein dela ere, eta baita Kontseiluaren eta Batzar Orokorrearen bileren buru izatea ere.
 - b. Ahalordeak ematea eta dokumentuak izenpetzea, publikoak edo pribatuak, Batzar Orokorra edo Errektore Kontseiluak hartutako erabakiak betez.
 - c. Bere botoekin erabakiak hartzeko unean Errektore Kontseiluan egon daitezkeen berdinketak ebaztea
 - d. Urgentziazko erabakiak hartzea, horien berri eman beharko duelarik berehala Errektore Kontseiluak egiten duen lehen bileran.
 - e. Errektore Kontseiluak eskatzen dizkion ekintzak, gestioak eta zereginak egitea.
2. Lehendakariordeak lehendakaria ordeztuko du eta hari esleitutako funtzioak egingo ditu hura ez dagoenean. Halaber, Errektore kontseiluak eta lehendakariak agintzen dizkieten egitekoak eta gestioak egingo ditu, bereziki lehendakariak Errektore Kontseiluko beste kide batzuegan eskuordetu ditzakeen gestioak.
3. Idazkariak funtzio hauek izango ditu:
 - a. Espedienteak osatzea eta horiek behar den bezala izapidetzea.
 - b. Lehendakariarentzat edo lehendakariordearentzat erreserbatuta ez dauden gutunak eta dokumentuak sinatzea.
 - c. Batzar Orokorrearen eta Errektore Kontseiluaren deialdiak idaztea eta abiaraztea.
 - d. Aipatutako organoen saioen aktak jasotzea.
 - e. Batzar Orokorrearen eta Errektore Kontseiluaren artxiboa, erregistro liburuak eta akta liburuak gordetzea.

- f. Kooperatibaren liburuen eta dokumentuen ziurtagiriak ematea, lehendakariaren oniritziarekin.
- g. Errektore Kontseiluak esleitzen dizkionak.

37. artikulua. ERREKTORE KONTSEILUAREN FUNTZIONAMENDUA

Errektore Kontseilua, aldez aurretik deituta, gutxienez bi hilean behin bilduko da, bere kide gehienak oporretan dauden hilea izan ezik; eta behar den guztietan ohiz kanpoko bilera egingo du.

Errektore Kontseiluaren bilera lehendakariak deituko du, idatziz, berak edo Kontseiluko edozein kidek eskatuta. Eskaera 7 egunen buruan gauzatu ez bada, Errektore Kontseiluko edozein kidek bilera zuzenki deitu ahalko du, betiere Kontseiluko kideen heren batek bat egiten badu.

Errektore Kontseiluaren bilera bideokonferentzia bitartez edo beste komunikabide mota erabiliz egin daiteke. Edozein modutan, parte hartzaileen identifikazioa argi eta garbi ageri behar da, komunikazioa jarraitua izan behar da eta, azkenik, deliberamenduetan hitza hartzeko eta botoa emateko aukera egon behar da. Kasu honetan, bilera zuzentzen duen pertsona dagoen tokian egiten dela ulertuko da.

Errektore Kontseilua erabat osaturik geratuko da eta, beraz, bere deliberamenduak baliozkoak izanen dira, bilerara kideen erdiak eta bat gehiago agertzen direnean, presente edo ordezkaturik. Errektore Kontseiluko kide batek beste bat bakarrik ordezkatu ahalko du.

Errektore Kontseiluko kideen bileran modu telematikoan, bideokonferentziaz edo beste komunikazio-bideren baten bidez parte hartzen duten kideak bileran daudela ulertuko da, baldin eta, aurreko paragrafoarekin bat etorritik, parte-hartzaileen identifikazioa argi eta garbi ageri bada, komunikazioa jarraitua izan bada eta deliberamenduetan hitza hartzeko eta botoa emateko aukera egon bada.

Kontseilu Errektorearen erabakiak kasu bakoitzerako ezarritako gehiengoz hartuko dira, Euskadiko Kooperatiben Legearen xedapenen arabera.

38. artikulua. ERREKTORE KONTSEILUAREN FUNTZIOAK ESKUORDETZEA

Errektore Kontseiluak bere funtzioak kide baten esku edo bere kideez osaturiko batzordeen esku utzi ahalko ditu; eta Zuzendari Kudeatzailea ere izendatu ahalko du. Horretarako, Errektore Kontseiluaren bi herenen aldeko botoak beharrezkoa izango dira, baita Kooperatiben Erregistroan inskribaturik egotea ere.

Funtzioen eskuordetzea egunero hartu behar diren erabakiei egiten die erreferentzia. Hauek Errektore Kontseiluak hurrengo bileran berrestu beharko ditu.

Edozein kasutan, Errektore Kontseiluak honako ahalmenak mantentzen ditu:

1. Batzar Orokorrak ezarritako politika orokorraren arabera, Kooperatibaren kudeaketaren jarraibideak ezartzea.
2. Bere esku dagoen enpresa-kudeaketaren kontrol zuzena eta iraunkorra.

3. Batzar Orokorrari kudeaketaren txostena aurkeztea, kontu ematea, emaitzak egozte eta esleipena proposatzea.
4. Beste pertsonen aldeko abalak edo fidantzen prestazioa onartzea.

39. artikulua. ERREKTORE KONTSEILUKO KIDEEN ERANTZUKIZUNAK

1. Kontseilu Errektoreko kideek behar den zorrotasunez eta arduraz beteko dituzte beren karguak, eta beren gain hartuko dituzte legearen edo estatutu hauen aurka edo behar besteko arretarik gabe jarduteagatik eragindako kalteak. Datu konfidentzialak isilpean gorde beharko dituzte, baita beren funtzioak utzi eta gero ere. Egintza kaltegarria egin edo erabaki kaltegarria hartu duten kontseilukide guztiak erantzule solidarioak izango dira, baita hartan parte hartu ez arren egintzaren edo erabakiaren berri jakindakoan berariaz aurka agertu ez direnak ere.
2. Kontseilu Errektoreko kideak arduratuko dira kooperatibak kooperatibaren delituen aurreko eredu bat egiteko duen betebeharra betetzeaz, bai eta eredu horren jarraipena egiteko mekanismoak ezartzeaz ere. Era berean, kooperatibaren betebeharra betetzeaz arduratuko dira, kooperatiba indarkeria sexistarik gabeko eremua izan dadin.

40. artikulua. ERANTZUKIZUN-AKZIOA ETA ERABAKIAK INPUGNATZEA

1. Kooperatibak Kontseilu Errektoreko kideen aurkako erantzukizun-akzio soziala egikaritu ahalko du, aurretik gehiengo arruntez Batzar Orokorrak hala erabakita, nahiz eta gai- zerrendan ez agertu. Batzar Orokorrak edozein unetan erabaki ahalko du akzioa egikaritzeari uko egitea edo onartzea. Erantzukizun-akzioa sustatzea erabakitzen bada, horretan aipatzen diren Kontseilu Errektoreko kideak automatikoki kargutik kanpo geratuko dira.
2. Erabakia hartu eta 3 hilabeteko epean kooperatibak erantzukizun-akzioa hasten ez badu, edozein bazkidek egin ahalko du.
3. Erantzukizun-akzioa 2 urteren buruan iraungiko da, erantzukizun hori sortu duten egintzak gertatu direnetik edo horien berri jakindako egunetik zenbatzen hasita.
4. Aurreko zenbakietan ezarritakoak hala izanik ere, horietatik kanpo geratzen dira bazkideek eta hirugarrenek indibidualki egin ditzaketen akzioak, Kontseilu Errektoreko kideen jardunaren ondorioz zuzenean beren interesei kalte egin bazaie.
5. Kontseilu Errektoreak hartutako erabakiak inpugnatu ahalko dira, legearen edo estatutu hauen aurkakoak badira, edo kooperatibaren interesen kalterako eta bazkide baten edo gehiagoren edo hirugarrenen mesederako badira.

Erabaki bat ezingo da inpugnatu, hura ondoriorik gabe utzi bada edo baliozkoa den moduren batean beste erabaki batez ordeztu bada.

6. Inpugnatzeko akzioetarako legitimazioa dute hauek:
 - a. Bazkide guztiek, erabakiaren berri izan eta 60 eguneko epean, betiere erabakia hartu zenetik urtebete igaro ez bada.

- b. Kontseilu Errektoreko kideek, erabakia hartu zenetik 60 eguneko epean.
 - c. Zaintza Batzordeak, b letrako epe berean.
7. Inpugnazioak aurreikusitako ondorioak izango ditu, eta batzar orokorraren erabakiak inpugnatzeko ezarritakoaren arabera tramitatuko da.

41. artikulua. ZUZENDARI KUDEATZAILEA. IZENDAPENA ETA KARGUGABETZEA. BETEBEHARRAK ETA ERANTZUKIZUNAK.

1. Errektore Kontseiluak Zuzendari Kudeatzaile bat izendatu ahal izango du Kooperatibaren jarduera profesionalizatua kudeatzeko.
2. Zuzendari kudeatzailearen izendapena eta funtzioak arau hauen menpe egongo dira:
 - a. Bere eskumenak beti Errektore Kontseiluak eskuordetutakoak izango dira. Kontseiluak kontrol iraunkor eta zuzena egingo dio eta aipatu organo sozialak onartutako kudeaketa helburuak betetzeko exijituko dio.
 - b. Halaber, Errektore Kontseilua izango da organo eskumenduna zuzendari kudeatzailearen kargua betetzen duen pertsona izendatzeko eta kargugabetzeko. Izendapena eta kargugabetzea Kooperatiben Erregistroan inskribatuko dira, eman zaizkion eskumenen ahalordetze eskriturarekin batera.
 - c. Zuzendari kudeatzailea Kooperatibako bazkidea izango da.
 - d. Zuzendaritza kudeatzaileari Kontseilu Errektorera aurreikusitako arauak aplikatuko zaizkio, organo sozial horrek erantzukizun-akzioa baliatzeko aukera alde batera utzi gabe, Batzar Nagusiaren akordio sozialak inpugnatzeko ezarritako epe beraren barruan.
 - e. Ezgaitasun eta debekuei dagokienean, Estatutu hauetan xedatutakoa hartuko da kontuan.

42. artikulua. ZAINZA-BATZORDEA . OSAERA, AGINTALDIA ETA IZENDAPENA

Kooperatibaren kudeaketaren kalitate demokratikoa zaintzeko eta alde guztien eskubideak bermatzeko, Zaintza Batzorde bat eta Errekurtso Batzorde bat eratu ahal izango dira, Euskadiko Kooperatiben Legeak ezartzen dituen baldintzetan. Bi organo horiek Kontseilu Errektoreak jarriko ditu martxan, behar izanez gero, eta lehenengo Batzar Orokorrek berretsiko ditu izendapenak.

Zaintza Batzordea kooperatibak nahi duenean sortuko da, edo nahitaez, kooperatiba osatzen duten pertsonen kopurua **100** pertsonakoa denean, kopuru hori gainditu eta egingo den hurrengo Batzar Orokorrean.

1. Zaintza Batzordeak 3 kide titular horietatik bi bazkide erabiltzaileak izango dira, eta bestea, zerbitzua ematen duen bazkidea edo bazkide laguntzailea, eta 2 ordeko izango ditu, bata bazkide erabiltzaileak izango da, eta bestea, bazkide hornitzailea edo bazkide laguntzailea. Haien agintaldiak ez du bat egingo Kontseilu Errektoreko kideenekin, eta 2 urtekoa izango da, baina berriro hautatuak izan ahalko dira.

Kide horiek bazkideak izango dira, baina bazkide ez direnak ere hautatu ahalko dira, betiere kide guztien erdiak baino gehiago ez badira eta karguan jarduteko baldintza egokiak betetzen badituzte.

2. Kide titularrak eta ordezkioak Batzar Orokorrak hautatuko eta kenduko ditu, isilpeko bozketa bidez. Kooperatibak berrogeita hamar soldatapeko baino gehiago baditu, Zaintza Batzordean ordezkatzeko dituen bat aukeratuko dute horiek, kontratu mugagabea dutenen artetik.

Titularren batek bere postua behin betiko uzten badu bakarrik hartuko du ordezkio batek haren tokia.

3. Zaintza Batzordeko kideek estatutu hauetan eta legez Kontseilu Errektoreko kideentzat ezarrita dauden arau berberak bete beharko dituzte erantzukizun, ezgaitasun, debeku, ordainsari eta inskripzioari dagokienez.

43. artikulua. INFORMAZIO-ESKUBIDEA

Kontseilu Errektoreak hiru hilean behin emango dio Zaintza Batzordeari kooperatibaren jardueren eta aurreikustekoa den bilakaeraren berri.

1. Zaintza Batzordeak bere eginkizunak bete ahal izateko komenigarritzat dauzkan egiaztapen guztiak egin ahalko ditu, eta aukera izango du zeregin hori batzordeko kide baten edo gehiagoren esku uzteko edo adituen laguntza eskatzeko, batzordeko inor aditua ez bada.
2. Zaintza Batzordeko kide diren guztiek eskura izango dute jakinarazitako edo jasotako informazio guztia, baina inola ere ezingo dute horrela lortutako informazioa edo ikerketen emaitzak estatutuetan ezarritako bideetatik kanpo ezagutzera eman.

44. artikulua. ESKUMENAK ETA FUNTZIONAMENDUA

1. Zaintza Batzordeak artikulua honetako 2. zenbakian zehaztutako eskumenak ditu, baina inola ere ezin dezake kooperatibaren kudeaketan zuzenean esku hartu, ez haren ordezkari gisa jardun hirugarrenen aurrean. Edonola ere, kooperatibaren ordezkari gisa jardungo du Kontseilu Errektorearen edo kontseiluko edozein kideren aurrean, organo horren aurkako inpugnazio judizialik badago edo kide horien kontratua amaitzen bada.
2. Zaintza Batzordearen eskumenekoak dira:
 - a) Urteko kontuak ikuskatzea, eta nahitaezko txosten bat egitea haiei buruz eta soberakinak banatzeko edo galerak egozteko proposamenari buruz, Batzar Orokorrean aurkeztuak izan baino lehen, baldin eta kooperatiba ez badago behartuta bere finantza-egoerak kontu-auditoretzar batek egitera.
 - b) Kooperatibaren liburuak aztertzea.
 - c) Batzar Orokorrerako deialdia egitea, Kontseilu Errektoreak dimisioa aurkezten badu, edo kooperatibaren onerako beharrezkoa dela uste badu,

eta Kontseilu Errektoreak eskaerari jaramonik egin ez badio, Euskadiko Kooperatiben Legean ezarritakoaren arabera.

- d) Ordezkaritza-idazkiak egoki emanda daudela ikusi eta oniritzia ematea, eta, oro har, Batzarretara joateko eskubideari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzea.
 - e) Sozietatearen erabakiak inpugnatzea, legez aurreikusita dauden kasuetan.
 - f) Batzar Orokorrari batzarrak berak Zaintza Batzordeari agindutako gaien edo egoeren berri ematea.
 - g) Batzar Orokorrak gainerako organoetako kideak hautatzeko eta izendatzeko prozesua zaintzea.
 - h) Kontseilu Errektoreko kideren batek ezgaitasun- edo debeku-arazoren bat badu, haren betebeharrak etetea, eta Batzar Orokorra egin bitartean ezinbesteko neurriak hartzea.
 - i) Euskadiko Kooperatiben Legeak berariaz egokitzen dizkion gainerakoak.
3. Zaintza Batzordeak isilpeko bozketa bidez kideen artetik bi aukeratuko ditu, bata batzordeburua eta bestea idazkaria izan daitezen, eta bere barne-funtzionamendua arautuko du. Dena den, Kontseilu Errektoreko edo Zaintza Batzordeko edozein kidek eskatu ahalko dio batzordeburuari deialdia egiteko; eskaera idatziz egin beharko du, eta arrazoiak azaldu beharko ditu. Eskaera egin dutenak Kontseilu Errektoreko edo Zaintza Batzordeko kideen gutxienez herenak badira eta hilabeteko epean deialdirik egiten ez bada, bi taldeetako edozeinek egin ahalko du Zaintza Batzorderako deia.

45. artikulua. ERREKURTSO BATZORDEA .OSAERA, AGINTALDIA ETA IZENDAPENA

1. Organo honen eskumena da entitateak bere baitan bazkideen arau-hauste larriengatik edo oso larriengatik lehen auzialdian hartutako erabaki zigortzaileak berriro aztertea, betiere tarteko den pertsonak hala eskatzen duenean.

Diziplinazkoak ez diren erabakiengatik ere errekurtsoa jarri ahalko da batzorde honetan, aukera hori ezarri bada Euskadiko Kooperatiben Legean edo estatutu hauetan.

2. Eskubide osoko bazkideak izan ahalko dira organo honetako kide, betiere baldintza hauek betetzen badituzte: gutxienez hiru urteko antzintasuna, kooperatiben arloko esperientzia eta egokitasuna, estatutuetan ezarritakoaren arabera.
3. Errekurtsoen Batzordeak 3 kide titular horietatik bi bazkide erabiltzaileak izango dira, eta bestea, zerbitzua ematen duen bazkide laguntzailea edo bazkide hornitzailea, eta 2 ordezkari izango ditu, bata bazkide erabiltzailea izango da, eta bestea, bazkide hornitzailea edo bazkide laguntzailea, eta haien agintaldia 3 urtekoa izango da, baina berriro hautatu ahalko ditu Batzar Orokorrak, isilpeko bozketa bidez, sozietatean kargurik ez duten eta kooperatibako soldatapekoak ere ez diren bazkideen artetik.

46. artikulua. ESKUMENAK ETA FUNTZIONAMENDUA

1. Errekurtsu Batzordearen eztabaidak baliozkoak izateko, bileran kideen erdiek baino gehiagok egon beharko dute, eta ezingo da botoa delegatu; erabakiak hartzeko, gehiengoa beharko da.

2. Diziplinarekin zerikusia duten erabakiak hartzeko, bozketa isilpekoa izango da beti, eta ez da egongo kalitatezko botorik.
3. Errekurtsoei buruzko tramitazioak egin eta erabakiak hartzean batzordeko kideek ezingo dute parte hartu, baldin eta errekurtsoan tarteko den bazkidearekiko bigarren mailara arteko odol-ahaidetasuna edo ezkontza-ahaidetasuna badute edota pertsona horrekiko mendekotasuna, adiskidetasun estua edo ageriko etsaitasuna badute.

47. artikulua. ERABAKIEN ONDORIOAK

Errekurtsoen Batzordeak hartutako erabakiak, sozietatearen nahiaren adierazpena direnez gero, berehala bete beharko dira eta behin betikoak izango dira. Dena den, inpugnatu ahalko dira, Batzar Orokorrak hartu izan balitu bezala, Kooperatiben Legeak ezarritakoaren arabera.

IV. KAPITULUA.- ARAUBIDE EKONOMIKOA

48. artikulua. BAZKIDEEN ERANTZUKIZUNAK

1. Bazkideek ez dute pertsonalki erantzungo sozietatearen zorrenatik. Zor horiengatik duten erantzukizuna kapital sozialerako izenpetutako ekarpenetara mugatzen da.
2. Itzuli beharreko ekarpenen zenbatekoa zehaztu ondoren, baja ematen duten bazkideek ez dute inolako erantzukizunik izango baja eman ondoren kooperatibak egindako zorrenatik.
3. Bazkideek, baja eman eta gero ere, erantzukizuna izango dute baldin eta kontratuak izenpetu eta betebeharrak hartu badituzte, berariaz eta espresuki Kooperatibarekin, eta betebehar horiek ez badira azkentzen, beren izaera dela-eta, bazkide izateari utzi eta gero.

49. artikulua. KAPITAL SOZIALA

1. Kooperatibaren kapital soziala bazkideen nahitaezko eta borondatezko ondare-ekarpenetatik hornitzen da.
2. Gutxieneko kapital soziala 3.000€ izango da. Eratze momentuan, kapital hori osorik izenpetu eta ordaindu behar da.
3. Honelakoak izan daitezke bazkideek kapital sozialari egin beharreko ekarpenak:
 - a. Baja kasuan itzultzeko eskubidea duten ekarpenak, Euskadiko Kooperatiben Legearen arabera.
 - b. Kontseilu Errektoreak, Euskadiko Kooperatiben Legearen arabera, baldintzarik gabe ezeztatu ditzakeen diru-itzulketarako eskubidea duten ekarpenak.

4. Kapital sozialari egindako ekarpenen egiaztagiri gisa, titulu izendunak erabiliko dira, baina ez dira balore-titulutzat hartuko; edo, bestela, partaidetza-libreta edo -liburuxka izendunak erabiliko dira, eta horietan, bazkide bakoitzak egindako ekarpen edo eguneraketa guztiak adieraziko dira, bai eta bazkide bakoitzari egotzitako galerengatik egindako kenkariak ere.
5. Ekarpinak dirutan egingo dira, baina ondasunetan eta eskubideetan ere egin ahalko dira; horrelakoetan, Errektore Kontseiluak zehaztuko du zenbat balio duten zer horiek, aurretik aditu independente batek horren gainean egindako txostena kontuan izanda.
6. Bazkide bakoitzak egindako guztizko ekarpenek ezin izango dute gainditu sozietatearen kapitalaren herena, salbu eta sozietate kooperatiboen eta bazkide laguntzaileen kasuan.

50. artikulua. NAHITAEZKO EKARPENAK

1. Bazkide lankidea mota guztiek ez dute hasierako nahitaezko ekarpen bera; honela banatzen da ekarpena, bazkide motaren arabera:
 - a. Bazkide erabiltzaileak: 100 € (ehun euro)
 - b. Lan-bazkideak: 100 € (ehun euro)
 - c. Bazkide hornitzaileak: 100 € (ehun euro)
 - d. Bazkide laguntzaileak:
 - i. arruntak 1.000 € (mila euro)
 - ii. bereziak (*) 50 € (berrogeitamar euro)
 - e. Pertsona edo erakunde den parte sozialaren bazkide titularra, botoa duena 50 € (berrogeitamar euro)

(*) Bazkide laguntzaile bereziekin Kooperatibaren parte izateko aukera ematen zaio beste multzoen baldintzak bete ez arren ekarpen ekonomikoa egin nahi duenari. Partaidetza aktiboa izatekotan, beste multzoetatik gehien egokitzen zaionean sartu beharko luke.

Bazkide bakoitzak kapital sozialera egin beharreko gutxieneko nahitaezko ekarpena une bakoitzean indarrean dagoen hasierako nahitaezko ekarpenaren %100 izango da, bazkide mota bakoitzerako, artikulua honen 4. atalean aurreikusitakoaren arabera.

2. Bazkide izateko, osorik eman beharko da hasierako nahitaezko ekarpena izena emateko orduan; baldintza hori bete ezean, ez da Bazkideen Erregistro Liburuan inskribatuko.
3. Bazkideei egotzitako Kooperatibaren galerengatik edo estatutuetan aurreikusitako zehapen ekonomikoarengatik bazkide batzuk kapital sozialean duten ekarpena artikulua honetako 1. atalean adierazitako gutxieneko kopuruaren azpitik gelditzen bada, egoera horretan dauden bazkideek kopuru horretara iristeko behar den ekarpena egin beharko dute eta, horretarako, Errektore Kontseiluak berehala eskatuko die bazkideei ekarpena egiteko.

Ekarpena 6 hilabeteko epean ordainduko da Errektore Kontseiluak eskaera egin zuen egunetik kontatzen hasita.

4. Batzar Orokorrak urtero zehaztu ahal izango ditu bazkide berrien hasierako nahitaezko ekarpena eta nahitaezko ekarpen berriak, baita ordaintzeko epeak eta baldintzak ere. Nahitaezko kapital handitzearekin konforme ez dagoen bazkideak sozietatea utzi ahal du, eta justifikatutzat joko da.

Aurretik egindako borondatezko ekarpenekin nahitaezko ekarpen berriak ordaindu ahal dira, bazkideak hala nahi badu.

5. Eskatutako ekarpenak ordaintzeko berandutzarik badago bazkideren baten aldetik, aurreko atalean ezarritakoaren arabera, Kooperatibari legezko interesa ordaindu eta berandutzaren ondorioz egindako kalteen eta galeren ordaina eman beharko dio. Bazkideak bere egoera zuzentzeko agindua jaso eta hurrengo hirurogei (60) egunetan ez badu zuzendu, edo nahitaezko baja eman ahal izango zaio.

51. artikulua. BORONDATEZKO EKARPENAK

1. Batzar Orokorrak bertaratutako eta ordezkaturako pertsonen botoen gehiengo soilarekin kapital sozialari borondatezko ekarpenak onartzea erabaki dezake, baldintzak zehaztuta: ordaintzeko epea, interes tasa, eguneratzea, itzulketa, eta eskualdagarritasuna, gutxienez. Baldintza hauek izan daitezke nahitaezko ekarpenenak baino onuragarriagoak.
2. Errektore Kontseiluak bazkideen borondatezko ekarpenak onartzea erabaki dezake, ordainsari mugak eta muga kuantitatiboak errespetatuz, Euskadiko Kooperatibaren Legean xedatutakoaren arabera.

52. artikulua. EKARPENAK EGUNERATZEA

1. Kooperatibaren balantzea zuzenbide erkideko sozietateentzat xedatutako termino eta baldintza berekin erregularizatuko da.
2. Balantzea erregularizatzearen ondoriozko gainbalioa, ekitaldi batean edo gehiagotan, lehenik eta behin dauden galerak konpentsatzeko erabiliko da eta gainerakoa, halakorik balego, Batzar Orokorrak erabakitako zenbatekoetan bideratuko da kapitala eguneratzera edo erreserbak handitzera, nahitaezko zein borondatezko banaezinetara.

53. artikulua. EKARPENEN INTERESAK

1. Batzar Orokorrak finkatu ahal du bazkideek kapital sozialari egindako ekarpenek zer interes sortuko duten. Interes hori ezingo da izan diruaren legezko interesa baino handiagoa.
2. Bazkide hornitzaileen eta laguntzaileak ematen dituzten bazkideen ekarpenek, izan nahitaezkoak edo izan borondatezkoak, ez dute interesik jasoko.

3. Lan-bazkideen ekarpenek, izan nahitaezkoak edo izan borondatezkoak, eta bazkide kontsumitzaileen ekarpenek eskubidea izango dute Batzar Orokorrak finkatutako interesa jasotzeko; dena den, interes hori inola ere ez da izango handiagoa diruaren legezko interesa baino, eta betiere kontuan hartu beharrekoa izango da artikulua honetako hurrengo zenbakian ezarritakoa.
4. Boto-eskubidea duten sozietate-zatien titular diren bazkideek eskubidea izango dute Batzar Orokorrak kapital-sozial unitatearen gainean finkatutako interesa jasotzeko. Dena den, interes hori ezingo da izan diruaren legezko interesa baino handiagoa, eta hori guztia, artikulua honen hurrengo atalean xedatutakoa errespetatuta.
5. Kapital sozialari egindako ekarpenek ez dute interesik sortuko galerak izan diren ekitaldietan, erabiltzeko moduan dauden erreserbetan interes horiek osoki edo partzialki ordaintzeko bezainbeste ez badago.

54. artikulua. EKARPENAK ESKUALDATZEA

1. Ekarpinak eskualdatu ahalko dira, bai inter vivos egintza moduan, bai mortis causa oinordetza moduan.
Titularrek baja eman ostean kooperatibak uko eginez itzuli gabeko ekarpenik baldin badago, bazkide berriek baja eman duten bazkideei ekarpenak erosiz egin beharko dute hasierako nahitaezko ekarpena.
Eskualdatze horiek egiteko, itzulketa-eskaeren antzinatasuna hartuko da kontuan, eta data bereko eskaerak baldin badaude, ekarpenen zenbatekoarekiko proportzioan banatuko da.
2. Inter vivos egintza moduan, bazkideen artean, eta bazkidetzat hartuko dira hurrengo hiru hilabeteetan bazkide izateko konpromisoa hartzen dutenak ere, arau hauek izango ditu eskualdatzeak:
 - Bazkide izateko konpromisoa hartzen duenari eskualdatzeko, haren bazkidetza onartu beharko da.
 - Eskualdatu behar duen bazkidearen ekarpena ezingo da izan txikiagoa unean-unean indarrean dagoen hasierako nahitaezko ekarpenaren zenbatekoa baino
 - Eskualdatzen den ekarpena erabili ahalko du, hartzaileak, hasierako nahitaezko ekarpena eta sarrera-kuota kitatzeko.
 - Erabakitako eskualdatze oro Kontseilu Errektoreari jakinarazi beharko zaio, hark onespina eman, kontrolatu eta erregistratu dezan.
3. Mortis causa oinordetza moduan, eskualdatu ahalko dira kausadunei, bazkideak badira eta hala eskatzen badute, edo, bazkide ez badira, aurretik bazkide gisa onartuta, oinordekoak hala eskatzen duenean, heriotzatik 3 hilabeteko epean.
4. Bazkideen hartzekodun pertsonalek ez dute inongo eskubiderik izango Kooperatibaren ondasunen gainean eta bazkideek kapital sozialari egindako ekarpenen gainean, biak ala biak ezin enbargatuzkoak baitira. Horrek ez ditu

eragotziko hartzekodunek balia ditzaketen eskubideak, hau da, bazkidearenak diren itzulketen, interesen eta itzulkinen gainean dituen eskubideak.

55. artikulua. EKARPENAK ITZULTZEA

1. Bazkide-izaera galtzen den kasu guztietan, bazkide izandakoek edo haren eskubidedunek eskubidea izango dute hasierako nahitaezko ekarpena itzul diezaietela eskatzeko, baja gertatu zen egunean ekarpenek zuten balioan eta lege-xedapenetan ezarritako baldintzetan. Kontseilu Errektoreak baldintzarik gabe uka dezake ekarpenak itzultzeko edozein eskaera.

Ekarpenak itzultzeko sistemak arau hauek izango ditu:

- a. Kontseilu Errektoreak itzulketa-eskaera onartzea erabakitzen badu, erabakia hartzen denetik bost urte igaro baino lehen itzuli beharko da ekarpena, edo urtebete baino lehen, bazkidea hiltzen bada. Kontseilu Errektorearen eskumena izango da hori erabakitzea.
- b. Kontseilu Errektoreak onartutako itzulketak eskaeren antzintasuna kontuan hartuz egin behar dira. Sozietate-ekarpenak itzultzeko gainerako baldintzen xehetasunak erabakitzea ere Kontseilu Errektorearen eskumena izango da.
- c. Kooperatibak itzultzea onartutako ekarpenetan, itzuli gabe dauden kopuruak ezingo dira eguneratu, baina eskubidea izango dute interesak jasotzeko (betiere ekitaldi ekonomiko bakoitzaren hasieran indarrean dagoen diruaren legezko interesa).
- d. Kontseilu Errektoreak itzulketa-eskaerari uko egitea erabakitzen badu, une horretatik aurrera eta itzultzea ukatu den ekarpenen bat dagoen bitartean, erabaki hauek hartu beharko dituzte kooperatibako organo sozialek, 2 hilabete igaro baino lehen:
 - Bazkideek kapitalari egindako ekarpenen ordainketa gisa, % Oeko interes-tipoa ezartzea.
 - Soberakin guztiak Nahitaezko Erreserba Funtsera eta/edo Borondatezko Erreserba Banaezinetara bideratzea, Nahitaezko Funtsera bideratu beharreko zenbatekoak kenduta.

Itzuli beharreko ekarpenen zenbatekoa ebaluatzeko, baja gertatu den ekitaldiaren itxierako balantzea hartuko da oinarritzat, eta baja gertatu den eguneko dataren arabera kalkulatu da.

2. Batzar Orokorrak erabaki ahalko du bazkideen kapital soziala komeni den bezainbeste murriztea, baina kooperatiban bazkide mota bakoitzarentzat unean-unean indarrean dauden nahitaezko gutxieneko ekarpenak edota boto eskubidea duten sozietate-zatien unitate bat mantendu beharko dituzte bazkideek. Erabaki hori hartzen badu, Batzar Orokorrak zehaztu egin beharko du zer zenbateko itzuli behar zaion bazkide bakoitzari eta zer epetan.
3. Baja justifikatua denean, 14. eta 15. artikuluetan ezarrita dagoen moduan edo heriotzagatik, ekarpenei ez zaie kenkaririk aplikatuko.

Gainerako kasuetan, Kontseilu Errektoreak kenkari hauek aplikatzea erabaki ahalko du:

- I. % 30erainokoa, bazkidea kanporatua izan bada edo borondatezko baja izanik gutxieneko iraunkortasun-epea bete ez dela-eta, ez-justifikatua bada.
- II. % 20rainokoa, borondatezko zein nahitaezko baja ez-justifikatua bada, bazkidearen nahitaezko ekarpenaren likidazio-zenbatekoaren gainean; ezingo zaie kenkaririk aplikatu borondatezko ekarpenei, ezta erretornu kooperatiboen bidez kapitalizatutakoei ere.

56. artikulua. ALDIZKAKO KUOTAK ETA EZ OHIKOAK

1. Batzar Orokorrak erabaki ahalko du aldizkako kuotak ezartzea, eta kuota horien zenbatekoa eta maiztasuna zehaztu beharko ditu. Hauek guztiak Barne Araudian garatuko dira.
2. Aldizkako kuotak sarrera gisa egotziko dira sortu diren ekitaldi ekonomikoko emaitza-kontuetan.
3. Aldizkako kuotak ez dira itzulgarriak, eta ez dira kapital sozialean sartuko; kooperatibaren Erreserba Funtsetarako erabiliko dira.
4. Batzarrek erabaki dezake aldizkako kuotak eta ezohikoak bazkide mota guztiei exijitzea edo estatutu hauetan aurreikusitako bazkide mota batzuei bakarrik.

57. artikulua. BESTE FINANTZAKETA BATZUK

Kooperatibak aukera izango du, aurretik behar diren erabakiak onartu ostean, Euskadiko Kooperatiben Legean ezarrita dauden edozein finantzabide-modalitate erabiltzeko

58. artikulua. SOBERAKIN GARBIAK

1. Soberakin garbiak zehazteko, merkataritza sozietateentzat ezarritako kontabilitate arauak eta irizpideak aplikatuko dira, hurrengo atalean xedatutakoa kontuan hartuta.
2. Honako hauek joko dira partida kengarritzat:
 - a. Kooperatibaren kudeaketarako entregatutako ondasunen zenbatekoa, zeina ez baita balioetsiko merkatu preziotik gora, bai eta bazkide langileen eta lanengatiko lan-aurrerakinen zenbatekoa ere, dagokion jarduera-sektorerako eremuan ohiko diren ordainsariak baino handiagoa ez den zenbateko globalean.
 - b. Kapital sozialari egindako ekarpenek sortutako interesak, eta, dagokionean, partaidetza bereziek eta kapital sozialean integratu gabeko ekarpenek eta bestelako finantzaketek sortutakoak.
 - c. Legez baimendutako amortizazioak.
 - d. Kooperatibaren funtzionamendurako beharrezkoak diren gastuak.
 - e. Indarrean dauden lege aplikagarriek ondorio berberetarako onartutako beste edozein kenkari.

59. artikulua. SOBERAKIN ERABILGARRIEN BANAKETA

1. Soberakin garbiak, behin aurreko ekitaldietatik zetozen galerak konpentsatzeko erabiltzen diren zenbatekoak kenduta eta bidezko zergak ordainduta, soberakin erabilgarriak izango dira.
2. Batzar Orokorrak arau hauen arabera banatuko ditu soberakin erabilgarriak:
 - a. Gutxienez %30 Nahitaezko Erreserba Funtsera eta Kooperatiba Sustapen eta Hezkuntzarako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako Derrigorrezko Kontribuziora (aurrerantzean, Derrigorrezko Kontribuzioa) bideratuko da. Gutxienez %20, Nahitaezko Erreserba Funtsera bideratu beharko da, eta gutxienez %10 Derrigorrezko Kontribuziora.
 - b. Derrigorrezko Kontribuziora bideratu beharreko gutxieneko ehunekoa erdira murriztu ahal izango da, Nahitaezko Erreserba Funtsa kapital sozialaren %50era iritsi arte.
3. Gainerakoa, Batzar Orokorrak erabakitzen duen proportzioan, horretarako arau berezia aplikatuz banaezinak diren Borondatezko Erreserba Funtsek zuzkitzera zuzenduko da.

60. artikulua. NAHITAEZKO ERRESERBA FUNTSA ETA DERRIGORREZKO KONTRIBUZIOA

1. Nahitaezko Erreserba Funtsa Kooperatiba sendotu, garatu eta bermatzeko da, eta ezin da banatu bazkideen artean.
Aurreko artikuluan aurreikusitako hornidurez gain, funts honetara bideratuko dira, nahitaez, bazkideek baja ematen dutenean Kapital Sozialari egindako nahitaezko ekarpenari kentzen zaion kopurua eta sarrera kuotak.
2. Derrigorrezko kontribuzioa enbargaezina da eta horren zuzkidurak balantzearen pasiboan agertuko dira, beste diru sailetatik bereizita.
Aurreko artikuluan xedatutako zuzkidurez gain, bazkideei ezarritako zehapen ekonomikoen zenbatekoa ere derrigorrez bideratuko da Derrigorrezko Kontribuzio horretara.
3. Derrigorrezko Kontribuzioan aplikatu beharreko jarraibide nagusiak Batzar Orokorrak ekitaldi bakoitzerako zehazten duen araudi espezifikoan jasoko dira, eta interes publikoko xede hauetakoren batera zuzenduko dira:
 - a. Bere bazkideak kooperatibismoan, jarduera kooperatiboan eta lanpostuarekin lotu gabeko beste gai batzuen inguruan prestatu eta heztera.
 - b. Kooperatiben arteko harremanen sustapenera, barne hartuz sustapenerako, asistentziarako, zuzendaritza komunerako edo kooperatiben arteko laguntza jardueretarako sortutako erakundeetan parte hartzeak sortzen dituen gastuen estaldura.
 - c. Hezkuntza eta kultura sustapenera, sustapen profesional eta asistentzialera, eta baita kooperatiba kokatuta dagoen gizarte ingurunean eta gizartean orokorrean kooperatibismoaren ezaugarriak hedatzera ere.

- d. Euskararen erabilera sustatzera.
 - e. Enpresa kooperatibo berriak sustatzera, euskal kooperatiben mugimenduak bultzatutako irabazi asmorik gabeko erakunde bati diru ekarpenak eginez.
 - f. Bazkideak eta langileak prestatzera eta sentsibilizatzen, kooperatiba sozietateetan politika eraginkor bat susta dezaten emakumeen eta gizonen berdintasunean urratsak egiteko.
4. Kooperatibak adierazitako interes publikoko helburuetarako erabili ez den Derrigorrezko Kontribuzio horren zenbatekoa, soberakinaren banaketa onartu eta hurrengo ekitaldian, irabazi asmorik gabeko erakundeei eman beharko zaie, aplikatzekoa den indarreko legeriak Derrigorrezko Kontribuzio honetarako ezarritako interes publikoko helburuetara bideratu dadin.

61. artikulua. BORONDATEZKO ERRESERBA FUNTS BANAEZINA

Aurrez Batzar Orokorrak erabakia hartuta, Kooperatibak Borondatezko Erreserba Funts bat osatu dezake, banaezina izango dena, galerak konpentsatzeko.

62. artikulua. GALERAK EGOZTEA

1. Batzar Orokorrak, galerak egotzeko, honako arau hauei jarraituko die:
 - a. Borondatezko Erreserba Funtsei, halakorik balego, zenbatekoaren zati bat edo osoa egotziko zaie, baina betiere Batzar Orokorrak hala erabakitzen badu.
 - b. Nahitaezko Erreserba Funtsari egotziko zaio, gehienez ere, soberakin positiboak izan diren azken 5 urteetan legeaz nahitaezkoak diren funtsetara bideratutako batez besteko ehunekoa, eta eraketa 5 urte horiek baino lehenagokoa ez bada, eratu zeneko data hartuko da abiapuntutzat. Halere, baldin eta Nahitaezko Erreserba Funtsa kooperatibaren kapital sozialaren %50 baino gehiago bada, galerak konpentsatzeko ere erabili ahal izango da ehuneko horretatik gorako zenbatekoa.
 - c. a) eta b) atalen arabera konpentsatu gabeko zenbatekoa bazkideen arteko bazkide erabiltzaileei eta bazkide langileei egotziko zaie, ekitaldi ekonomiko bakoitza ixtean izandako eragiketa bolumenaren proportzioan egingo da.
Botoa emateko eskubidea duten kooperatibako bazkide ez direnen kasuan, egotzitakoaren banaketa honela egingo da: ordaindutako kapitalaren proportzioan, dagokien zati sozialaren zenbateko osoaren gainean.
 - d. e) Bazkide erabiltzaileei eta lan-bazkideei honela egotziko zaie dagokien galera zatia:
 - Bazkide kontsumitzaileei, urteko kontsumoen arabera, edota Barne Araudian definitutako irizpide osagarri edo alternatiboen arabera.
 - Lan-bazkideei, urteko lan-aurrerakin gordinen baturaren arabera, ezin izango zaie egotzi urteko lan-aurrerakin gordinen % 10etik

gorako urteko galerarik. Aipatutako mugara iritsiz gero, gainerako galerak bazkide kontsumitzaileei egotziko zaizkie, bai eta aurreko ataleko proportzio berean botoa eman ahal duten eta kooperatibako parte ez diren zati-sozialen titularrei ere.

Bazkide bakoitzari egotzitako galerak zuzenean kitatuko dira, edota kapital-karpenetatik kenduta, onartu diren ekitaldiaren barruan.

2. Aurreko atalean adierazitakoa gorabehera, Batzar Orokorrak erabaki ahal izango du ekitaldi bateko galera guztiak edo batzuk kontu berezi batera egotzea, etorkizuneko emaitza positiboen kargura amortizatzeko, 5 urteko gehieneko epearen barruan. 5 urteak igaro eta galerarik geratzen bada konpentsatu gabe, galerak une horretan bazkide diren guztien artean banatuko dira, azken urtean bakoitzak izandako jarduera kooperatibizatuaren proportzioan, aurreko ataleko c) letran ezarritako irizpidearen arabera, eta urtebeteko epean ordaindu beharko dira. Aldi horretan baja hartzen duten bazkideei konpentsatzeko dagoen galera funtsari dagokion zatia egotziko zaie.

Aurreko zenbakietan adierazitako epe guztiak igaro eta oraindik galerak konpentsatu gabe geratzen badira, Batzar Orokorrak erabakitako ekarpen berrien bidez edo kooperatibako bazkide izaerari eusteko beharrezkoak diren ekarpen berrien bidez ordainduko dira. Era berean, bazkidearen ekarpenak Estatutuek ezartzen duten gutxienekotik behera baldin badaude eta bazkideak ekarpen gehiago egiten ez baditu, bazkide horri baja emango zaio.

63. artikulua. KONTU AUDITORETZA

1. Kooperatiba behartuta dago urteko kontuak eta ekitaldiko kudeaketa txostena kanpoko auditoretzapean jartzera, Kontu Auditoretza Legean eta hori garatzen duten arauetan ezarritakoaren arabera, ondoko kasuetako bat gertatzen bada:
 - a. Arauz jartzen diren mugak gainditzen direnean. Muga horiek, gutxienez, aipatu legetik edo hori garatzeko arauetatik eratorritako honako hauek aipatuko dituzte: negozioaren zenbatekoa, balantzearen araberrako gutzizko aktiboaren zenbatekoa eta langileen batez besteko kopurua.
 - b. Batzar Orokorra deitzeko exijitzeko beharrezkoa den gutxieneko bazkide kopuruak eskatzen duenean eta betiere eskatzaileek kostuak euren gain hartzen dituztenean, eragotzi gabe gerora kobratu ahal izatea, kontabilitatean funtsezko akatsak edo irregulartasunak antzeman badira.
 - c. Batzar Orokorrak, Errektore Kontseiluak edo Zaintza Batzordeak hala erabakitzen duenean.
2. Kontu auditoreak Batzar Orokorrak izendatuko ditu eta, alakorik ezean, Errektore Kontseiluak, eta, horrela eginez gero, izendapenaren berri jakinarazi beharko du egiten den lehen Batzar Orokorrean.

V. KAPITULUA.- DOKUMENTAZIO SOZIALA ETA KONTABILITATEA

64. artikulua. DOKUMENTAZIO SOZIALA

1. Kooperatibak honako liburu hauek eramango ditu ordenan eta egunean:
 - a. Bazkideen erregistroa.
 - b. Kapital sozialera egindako ekarpenen erregistroa.
 - c. Batzar Orokorraren eta Errektore Kontseiluaren aktak, eta, hala badagokio, Zaintza Batzordearenak eta Errekurtso Batzordearenak.
 - d. Inbentarioak eta Balantzeak.
 - e. Egunerokoa.
 - f. Lege xedapenek eskatzen dituztenak.

Eta erabili aurretik gaitu beharko dira eta, dagokionean, legeztatu Euskadiko Kooperatiben Erregistroan.

2. Liburuak eta kontabilitateko gainerako erregistroak koadernatuta eta foliatuta joango dira. Baliozkoak dira, halaber, nahitaezko liburuak osatzeko prozedura informatiko edo elektronikoen bidez egindako idazkunak eta idatzoharrak. Liburu horiek, euskarri elektronikoen edo paperean, Euskadiko Kooperatiben Erregistroak legeztatuko ditu 6 hilabeteko epean, ekitaldiaren itxiera datatik zenbatzen hasita. Aipatutakoaz gain, aurreko atalean aipatutako organoen aktak, informatikako prozeduren bitartez edo antzeko prozeduren bitartez egindakoak, Kooperatiben Erregistrora bidaliko dira, bidalketa ziurtatuz, legeztatzeko.

65. artikulua. KONTABILITATEA

1. Kooperatibak kontabilitatea ordenatua eta bere jarduerarako egokitua eraman behar du, Merkataritza Kodearen arabera, araubide ekonomiko kooperatiboaren berezitasunak errespetatuz.

Kooperatibaren ekitaldi ekonomikoa urtarilaren 1ean hasi eta abenduaren 31n amaituko da.

2. Ekitaldia ixtean, Errektore Kontseiluak Kooperatibaren urteko kontuak formulatu beharko ditu. Kontu horietan, balantzea, galdu-irabazien kontua, memoria eta, hala badagokio, ondare garbiaren aldaketen egoera orria eta diru fluxuen egoera orria sartuko dira, aplikatzekoa zaion finantza informazioari buruzko arau esparruarekin bat etorritik, eta sozietatearen ekitaldia ixten denetik gehienez ere 3 hilabeteko epean.

Errektore Kontseiluak dagokion kudeaketa txostena ere aurkeztuko du, urteko kontuekin batera, merkataritza legeriaren arabera, eta, hala badagokio, informazio ez-finantzarioaren egoera orria, kudeaketa txostenean edo bereizitako txosten batean jasoa.

66. artikulua. URTEKO KONTUAK GORDETZEA

Errektore Kontseiluak urteko kontuak eta, hala balegokio, Kudeaketa Txostena eta kontu auditoreen txostena aurkeztuko ditu bere kide guztiek sinatuta, Batzar Orokorrak onartu eta hilabeteko epean, Kooperatiben Erregistroan gordetzeko. Kideren batek sinatzerik ez badu, espresuki zergatia adieraziko da.

VI KAPITULUA.- DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA

67. artikulua. DESEGITEKO ARRAZOIAK ETA ERABAKIA

1. Arrazoi hauengatik desegin ahalko da kooperatiba:
 - a) Estatutuetan zehaztutako helburu soziala gauzatzeko ezintasun nabarmena.
 - b) Bi urtez jarraian, organo sozialak geldirik edo jarduerarik gabe egotea edo kooperatibaren jarduna arrazoi justifikaturik gabe etetea.
 - c) Kooperatiba eratzeko legez behar den gutxienekotik behera murriztea bazkide kopurua, baldin eta 12 hilabetean baino gehiagoan horrela irauten badu.
 - d) Estatutu hauetako 49. artikuluko 2. zenbakian ezarritako gutxienekotik behera murriztea kapital soziala, baldin eta 12 hilabeteko epean horrela irauten badu.
 - e) Kooperatibaren erabateko zatiketa edo bat-egitea.
 - f) Konkurtso Legean ezarritakoa betez, kooperatiba konkurtsopean dagoenean, entitatearen likidazio-faseari hasiera ematen dion ebazpen judizialak kooperatibaren desegite-deklarazioa jasotzea.
 - g) Batzar Orokorrak kooperatiba desegiteko erabakia hartzea, berariaz horretarako deitutako bileran.
 - h) Legeetan ezarritako beste edozein arrazoi.
2. Kooperatiba desegiteko erabakia hartzeko, gehiengo arrunta beharko da, aurreko zenbakiko e eta g letretan jasotako kasuetan izan ezik; horietan, 31. artikuluko 2. zenbakian adierazitako gehiengoa beharko da.
3. Kooperatiba desegiteko edozein arrazoi gertatzen denean, Kontseilu Errektoreak Batzar Orokorrerako deia egin beharko du, bi hilabeteko epean. Zaintza Batzordeak edo edozein bazkidek administratzaileei eskatu ahalko die deialdia egiteko.

Kontseilu Errektoreak, eta interesa duen edonork, kooperatibaren desegite judiziala eskatu ahalko du, kasu hauetakoren bat gertatuz gero:

- a) Batzar Orokorrerako deialdirik ez egitea.
 - b) Batzar Orokorra estatutuetan finkatuta dagoen epearen barruan ez biltzea.
 - c) Batzar Orokorra bildu arren, kooperatiba desegiteko erabakia hartu ezin izatea.
 - d) Batzar Orokorra bildu arren, kooperatiba desegitearen aurkako erabakia hartzea.
4. Kooperatiba desegiteko erabakia, edo desegitea deklaratzeko duen ebazpen judiziala, Kooperatiben Erregistroan inskribatu beharko da, eta, gainera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta kooperatibak egoitza soziala duen lurralde historikoko zabalkunde handiko egunkari batean argitaratu.

68. artikulua. LIKIDAZIOA

Kooperatibaren likidazioa Euskadiko Kooperatiben Legean eta indarrean dauden eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenetan jasotakoaren arabera egingo da.

69. artikulua. SOZIETATEAREN ONDASUNAK ESLEITZEA

1. Sozietatearen ondasunak ezin izango dira esleitu edo banatu, harik eta sozietatearen zorrak oso-osorik ordaindu arte, zor horiek kontsignatu arte edo mugaeguneratu gabeko kredituen ordainketa ziurtatu arte.
2. Aurreko paragrafoan zerrendatutako zorrak ordaindu ondoren, sozietatearen gainerako ondasunak hurrenkera honetan esleituko dira:
 - a. Kooperatiben hezkuntzarako eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako Kontribuzioa Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren esku jarriko da.
 - b. Bazkideei kapital sozialari egindako ekarpenen zenbatekoa itzuliko zaie, hala badagokio eguneratuta, borondatezko ekarpenetatik hasita eta nahitaezko ekarpenekin jarraitu.
 - c. Estatutuetan edo Batzar Orokorren erabakiz banatzeko modukoak diren Borondatezko Erreserba Funtsetan duten partaidetza itzuliko zaie bazkideei. Funtz horiek Estatutuetan edo akordio horretan ezarritako arauen arabera banatuko dira, eta, halakorik ezean, bazkide bakoitzak azken 5 urteetan kooperatibarekin egindako eragiketa, zerbitzu edo jardueren proportzioan, edo iraupen laburragoko kooperatiben kasuan, eratu zireneko data abiapuntu hartuta.
 - d. Bai Nahitaezko Erreserba Funtzaren bai Kooperatibaren ondasun likidoaren soberakina, halakorik balego, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren esku jarriko da.

AZKEN XEDAPENAK

LEHENA. ARBITRAJE KOOPERATIBOA

Kooperatibaren eta bazkideen eta kooperatibako bazkideen artean harreman kooperatibizatuen esparruan –baita likidazio aldian ere– sortzen diren auziak Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren zuzenbideko arbitrajearen menpe jarriko dira nahitaez, Kooperatibaren barne bideak eta kontziliaziokoak agortu ondoren, Kooperatiben Arbitrajeko Euskal Zerbitzuaren bitartez, betiere organo horrek ahalmena badu aipatu auziak ebazteko. Aldeek berariaz hitzematen dute arbitraje horren ondoriozko laudoa beteko dutela.

Hala eta guztiz ere, Kooperatibetako bazkideek, edozein motatakoak direla ere, bazkideen eta Kooperatibaren artean beren izaeragatik sor daitezkeen gatazkak

ebaztera jurisdikzio eskudunera edo ebazpen estrajudizialera jo aurretik, Euskadiko Kooperatiben Legean, abenduaren 20koan, eta lege hori garatzeko arauetan, estatutu sozialetan edo kooperatiba barneko arauetan ezarritako kooperatibako barne bidea agortu beharko dute.

BIGARRENA. LEGELARI AHOULKULARIA

1. Baldin eta, Kontu Auditoretzari buruzko Legeak xedatutakoak edo haren garapen-arauak betetzeko, kooperatiba behartuta badago urteko kontuen kanpo-auditoretza egitera, letradu aholkulari bat izendatu beharko du, Kontseilu Errektoreak erabakita.
2. Letradu aholkulari horrek Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskriba daitezkeen Batzar Orokorraren edo Kontseilu Errektorearen erabakiak sinatuko ditu, zuzenbidearen arabekoak diren irizpena emanez.

Erabaki horien ziurtagirietan jasota geratuko da letradu aholkulariaren irizpena duten erabaki horiek akta-liburuan daudela.

3. Letradu aholkulariak, arduragabekeria profesional ez jokatuz gero, erantzukizun zibila izango du kooperatibaren, hango bazkideen eta hirugarren ez-bazkideen aurrean.
4. Ezin izango dira kooperatibaren letradu aholkulari izan ez zuzendari-gerentea, ez Kontseilu Errektoreko kideak, ez Errekurtsoen Batzordekoak eta ez Zaintza Batzordekoak, eginkizun bateraezinak direnez gero.
5. Kooperatibaren eta letradu aholkulariaren arteko harremana zerbitzuen errentamenduzkoa izan ahalko da (profesional liberal gisa, lan-kontratupekoa), edo sozietate-harremana (lan-bazkide gisa).

HIRUGARRENA. INDARKERIEI ETA DELITUEN PREBENTZIOA

1. Kooperatiba izango da edozein indarkeria mota borrokatuko duen lan- eta jardun-eremua; bertan pertsona guztien berdintasun printzipioak errespetatuko dira.
2. Kooperatiben Legearen 13.1.q) atalak dioenari jarraituz, kooperatibaren delituei aurrea hartzeko eredu bat egingo da, eta eredu horren jarraipena egiteko mekanismoak ezarriko dira. Halaber, berariazko baliabideak jarriko dira kooperatiba bortizkeria matxistatik gabeko eremua izan dadin.
3. Kooperatibak edozein motako jazarpenari aurre egiteko protokolo bat edukiko du. Protokolo horretan, edozein jazarpen motari buruz aurkeztutako erreklamazioak eta salaketak ebazteko jarduketak jasoko dira, eta behar diren bermeekin aplikatuko da.
4. Kooperatibak beharrezko prestakuntza eta informazioa eskainiko die bere lan-bazkide guztiei eta besteren konturako langile guztiei, aipatutako eskubideak erabat errespetatu beharraz jabetu daitezen.